

## Herririk Herri | 3

Erralde berriro zabaltzeko "aukera" dagoela diote hiltegiako arduradunek



## Berbaz | 8

Unibertsitate Orientazio Azoka antolatu dute Jesuitetan asteen

## Kultura | 11

Xabier Montoiagaz, bihar Elorrioren aurkeztuko duen disko berriari buruz

## ABADIÑO | 2

### Gerediagako AP-8rako sarrera martxorako gertu

"Zenbait ustekabekok" Gerediagako lotunearen obrak amaitzea atzeratu dute. Gerediaga-Elorrio erradiala, berriz, udan hasiko dira eraikitzen.



## DURANGO | 3

# Eguneko zentroa egiteko proiektua aurrera doa

Aldundiak aurrekontuetako 1,3 milioi euro bideratuko ditu proiektu horretara

Lanei 2012an ekiteko asmoa daukatela jakin eragin du Pilar Ardanza diputatuak



### Greba mugagabea Gruas Artetxen, kaleratzeen aurka

**Iurreta** Greba mugagabea daude Gruas Artetxe enpresako 24 behargin urtarrilaren 12tik. Iragarritako lan-taldearen berregituraketaren arabera, enpresak 10 edo 14 langile kaleratuko dituela iragarri du. ELAK

dioenez "gestio txarraren" ondorioz dago enpresa egungo egoeran. Sindikatutik azaldu dutenez, langileei hainbat nomina zor dizkiete. Egoera salatzeko elkarretaratzea antolatu zuten eguaztenean Ezkurdin. | 4

## ELORRIO | 6

### Segurtasun protokolo bi sinatu ditu udalak Ertzaintzagaz

## KIROLA | 15

### Mallabiko Txondor elkarte, aizkolari eta harri-jasotzaile gazteen eskola

## Berriz | 7

BBK-ko hauteskundeetan parte hartzeari ezezkoa eman diote

## Zaldibar | 3

Inguruko produktuak salgai, domekan, XIV. Neguko Azokan

## Otxandio | 6

Herritarrek erabakiko dute udalaren kultur eskaintza

## Mañaria | 4

Udal aurrekontuak onartuta, Bilduko zinegotzien botoekin



## Jaio barnizatuak

Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.

Pintura eta pintura apaingarria.

Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ - 94 682 41 43 - 658 75 84 21  
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com



# HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

ABADIÑO

## Gerediagako AP-8rako sarbidea, martxorako prest

Udazkenerako aurreikusten zuten lanak amaitzea, baina martxoa-apirila arte atzeratuko dira lanak

Lanen kudeaketaren ardura daukan Bizkaiko Aldundiko Interbiak sozietateak jakinarazi duenez, "obran gertatutako zenbait ustekabekok" eragin dute AP-8 autobideko Gerediaga auzoko sarbide berriaren eta hirugarren erreia eraikitze lanen amaiera, udaberrira arte atzeratzea. Asteon aurreratu digutenez, martxorako edo apirilera itxaroten dute lanak amaitu eta peaje eta sarrera-irteerari berriak zabaltzea.

Obra horretan, Iurreta eta Gerediaga arteko ia bost kilometroan hirugarren erreia dihardute eraikitzen; Aldundiaren berbetan, "autobidearen ahalmena aregotzeko helburuz".

Besteak beste, AP-8-rako eta N-634 eta BI-633 errepideetarako lotura adarrak izango ditu martxoan zabaltzen dutenean Gerediaga auzoko sarbide horrek, eta biribilgune bi eraiki dituzte zonalde horretan trafikoa bideratzeko.

Obra nagusiaz batera, besteak beste, San Blas hotelaren aurrean biribilgunea eraikitze, Gerediaga eta Traña-Matiena artean oinezkoentzako ibilbideak sortzeko, N-634 errepidearen gainetik oinezkoentzako pasabidea eraikitze, inguruko enpresetarako oinezkoen sarbideak sortzeko eta hainbat espaloi-zati atontzeko konpromisoa hartu zuen Interbiak enpresa arduradunak.

### Auzotarrak batzartuta

Lanak amaitutzat eman orduko, auzotarrei eragiten dieten aipaturako obra horiek "amaitu barik hemendik hanka egin ez dezaten" eskatzen dute Hamabi Harri auzo elkarteok. "Egin ez dutena egin, amaitu barik utzi dutena amaitu edo txarto amaitu dutena konpondu dezaten" eskatzeko, udaleko ordezkariekin eta obraren ardura daukan Interbiak-ekin batzarra egin gura dute. ■ I.E.



"Zenbait ustekabekok" eragin dute obraren amaiera atzeratzea.

## Gerediaga-Elorrio erradiala udan hasiko dira eraikitzen

José Luis Bilbao Bizkaiko ahal-dun nagusiak iragarri du udan Gerediaga-Elorrio errepide erradialaren obrak martxan jarriko dituztela. Administrazio adjudikazioaren bidez egingo dutela azaldu du Bilbaok. Errepidea eraikitze 237 milioi euro inguruko inbertsioa egingo dute,

proiektuak, zerbitzuak lehenagotzea eta desjabetzeak barne. Obrak burutzeko epea 45 hilabetekoa izango dela aurreratu du Aldundiak.

A-8 autobidea eta N-634 errepideagaz Gerediagan lotura egingo du. Gaztelua auzoan hiru tunel eraikitzea aurreikusi

dute. Lehenengoak 594 metro izango ditu, bigarrenak 1.140 metro eta tunel artifizialak 216 metro. Muntzaratz auzoagaz lotura izango du, eta handik Elorriora bidean 95 metroko tunel artifiziala eraikiko dute; 275 metroko biaduktua ere bai Atxondon.

Lanon helburua Bizkaiko eraikuntza-sektoreko jardura bultzatzea eta komunikazio azpiegiturak hobetzea dela azaldu dute. ■ J.G.

## Gose greba mugagabea abiatu du Eneko Zarrabeitiak

Urtarrilaren 13an, joan zen barikuan abiatu zuten Frantziako Poitiers Vivonne espetxean preso dauden Eneko Zarrabeitia abadiñarrak eta Gorka Azpitarte kideak gose greba mugagabea.

**Urtarrilaren 13an abiatu zuten Frantziako Poitiers Vivonne espetxean gose greba**

**Ezarri dizkieten "zigor bidegabeak kendu arte" jarraituko dute ekintzagaz**

Euskal preso biei elkartzasuna helarazteko bidalitako oharrean, preso biak bakartuta dauzkatela eta "zigor bidegabe hori kendu arte" gose greban jarraitzeko asmoa agertu dutela diote. "Euskal preso politikoei Frantziako espetxeetan sufritzen dituzten bidegabeko egoerak" salatu dituzte Zarrabeitiak eta Azpitartek. ■ I.E.

## San Blas azokarako abelburuak inskribatzea

Urtarrilaren 27a arteko epea zabaldu dute, San Blas jaietako azokan parte hartu gura duten abeltzainek izena emateko.

Euren abelburuak otsailaren 3ko azokan parte hartzeko inskribatu gura dituztenek Lorra kooperatibagaz ipini behar dute hartu-emanetan: 94 455 50 63 telefono zenbakian.

Iaz egin zuen moduan, aurten ere San Blas eguneko nekazaritza eta abelburu azokan izango diren abelburuen parte hartzea arautuko du Udalak. Aurretiaz izena emateko epea zabaldu du, "lehiaketaren antolakuntza hobetu guran".

**Iaz lehenengoz egin zuten legez, abelburuen parte hartzea arautuko du udalak**

Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, "espazioa eta baliabideak hobeto antolatu" gura dituzte, "baina baserriarrei gura duten beste abelburu aurkezteko aukera emanez". ■ I.E.

DURANGALDEA

## Eguneko zentroa zabaltzea onartu du Bizkaiko Aldundiak

Geu Be elkarteak urteetan eskatu du zentroa, eta aurten hasiko dira eraikitze lanak

Oraindik kokalekua zein izango duen zehaztu ez badute ere, Bizkaiko Foru Aldundiak Durangaldean eguneko zentroa egitea onartu du bere aurrekontuetan. Guztira 1,3 milioi izango litzuzkeen proiektua 2012an hasia aurreikusitako adierazi du Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako diputatuak. Aldundiak aurtengo aurrekontuetan 300.000 euro bideratu ditu egitasmo horretarako.

Eguneko zentroa eraikitzen uda baino lehenago hasia aurreikusitako dute, eta, gehienez, 24 hilabete iraungo litzuzketen lanek.

Behar bereziak dituzten familien Geu Be elkartearen barikuan batzartu zen Aldundiko arduradunekin, eta sorpresa handia hartu dute berria jakitean: "Krisi momentuetan gaudela kontutan hartuta, aurten oso gaitz ikusten

genuen proiektua onartzea", azaldu du Jose Alfaro Geu Be-ko koordinatzaileak. Elkarteak bere sorreratik jardun du eguneko zentroa eskatzen: "Batez ere, premia horregatik sortu zen elkarte".

**"Krisi garaian gaudela kontutan hartuta, ez genuen uste aurten proiektua onartuko zutenik"**

Geu Be elkarteko familiek euren ilusioaren berri eman dute gutun bidez. Hamar urte daramatzate eguneko zentroa eskatzen. Familien berbetan, euren seme-alabek etxetik gertu euren autonomia hobetzeko, eta "pertsonek moduan osotasunean garatzeko" aukera izango dute eguneko zentro horri eskerrak. ■ A.U.

MALLABIA

## Astelehenean hasiko da frontenis txapelketa

Astelehenean ekingo diote frontenis txapelketaren bosgarren edizioari. 36 parte-hartzailek izena eman dutela ezagutzera eman du Juan Carlos Perez antolatzaileak. Azaldu duenez, jokalariek hiru mailatan sailkatuko dituzte. Partidak astelehenetik egue-

**Partidak astelehenetik eguenera jokatuko dituzte, 18:30etik 21:00etara**

nera jokatuko dituzte Mallabiko pilotalekuan, arratsaldeko 18:30etik 21:00era, maiatzaren erdialdera arte. Aurten liga sistema jarriko dute martxan, beraz, datorren urtera begira igoerak eta jaitzierak egongo dira jokalarien emaitzen arabera. Irabazleendako udalak emandako txapel eta garaikurrak izango dira.

Ekainean frontenis maratona antolatuko dute, bakarka eta bikoteka. ■ J.G.



**DURANGO**

# Lan modua aldatu eta hiltegia berriro zabaldu gura dute

Osasun Sailagaz izandako batzarrean plangintza aurkezteko konpromisoa hartu du Erraldek

**E**rraldeko arduradunek Durangoko hiltegiaren irekiera geroago eta gertuago ikusten dute. Osasun Sailagaz atzo izandako batzarrean "Eusko Jaur-laritzak proposamena aztertze konpromisoa" hartu duela azaldu du Mikel Ansotegi hiltegiako presidenteak.

Joan zen zapatuan Erralde osatzen duten 19 beharginek hilketa prozesua bertan behera utzi zuten, Osasun Sailaren aginduz. Eguaztenean hiltegiako arduradu-

riek; orain arteko gabeziak konpondu diren aztertuko dute", argitu dute Osasun Sailatik atzoko batzarrean ondoren.

Hiltegien inguruan Europako araudia betearazteko ardura du Jaur-laritzak. Durangokoak hainbat gabezia dituela eta, konponbideak bilatzen dihardute. Konpondu beharreko arazo nagusia hilketa prozesua 'U' forman behar-linean egitea izan da, "horretarako obra handia egin behar bailitzateke". Erraldeko arduradunek proposatu dutenez, "lan egiteko modua aldatzea" izan daiteke konponbidea. Langileak ez liratekenez euren postutik mugituko, ez lirateke gurutzatuko.

**Plangintza osatzeko Erraldek kanpo diharduen teknikaria kontratatatu dutela azaldu dute**

nak Eusko Jaur-laritzako ordezkariekin batzartu ziren, eta Erralde "aste batzuetan osterara ere zabaltzeko aukerak" daudela azaldu du Ansotegik. Proposatutako aldaketak aztertze konpromisoa hartu du Osasun Sailak. "Hiltegiako arduradunek esan digutenez, gabeziak zuzentzen dituen plangintza aurkeztuko dute teknika-

**Teknikaria lanean**

Lan egiteko moduaren aldaketa horrez gainera, beste konponketa batzuk jasotzen dituen plangintza aurkeztuko dio Erraldek Osasun Sailari, "ahalik eta arinen zabaldu ahal izateko". Plangintza hori sortzeko Erraldek kanpo diharduen teknikari bat kontratatatu dutela aurreratu dute.



Plateruenean aurkeztu dute egitasmo berria, martitzen honetan.

**Berrizko hiltegia**

Erraldeko arduradunak Nekazaritza Sailagaz batzartzekotan dira, datorren astean, Berrizko hiltegi-ko obraren finantziarioari buruz berba egiteko.

Hiltegi berriaren proiektuak oraingoz finantziarioen % 60 dauka segurtatuta; Nekazaritza Sailak berak % 40ko laguntza ematea onartu du, eta hiltegia babesten duten hamabost udalerriek % 20 jarriko lukete. Azken hileotan, gainera, hainbat udalekin ipini dira

**Datorren astean hiltegi berria berba egiteko batzarra daukate Nekazaritza Sailagaz**

**Berrizko hiltegia eraikitzen hasteko finantziarioen % 40 falta zaio Erralderi**

hartu-emanetan Erraldeko arduradunak, eta egitasmoan sartzeko interesa agertu dutela jakinarazi dute.

Erraldeko arduradunen asmoa Berrizko proiektuamartan ipini arte Durangoko hiltegiak zerbitzua ematen jarraitu ahal izatea da. Horretarako Osasun Sailagaz eta Nekazaritza Sailagaz hartu-emanetan jarraitu behar dute, osasun arloko baldintzen arazoari eta finantziarioen auziari aurre egiteko. ■ J.G./A.U.

# Merkatarientzako onurak ordenantza fiskaletan

Hobariak izango dituzte zaharberitze lanengatik

Dendari eta ostalariek laguntzak izango dituzte zerga batzuk ordaintzeko, Durangoko Udalak ordenantza fiskalei egindako zenbait alegazio onartu eta gero. Merkatarien +Dendak elkarrekin aurkeztu dituzte alegazio horiek, eta zaharberitze lanetan laguntzeko eta birziklapena bultzatzeko balioko dute.

Eraikuntzen zergari dagokionez, zaharberitze lanengatik

ordaindu beharreko diru kopuruan % 90eko hobariak izango dituzte Durangoko dende eta tabernek.

Ingurugiroagaz eta iraunkortasunagaz zerikusia daukan alegazioa ere onartu du udalak. Pape-raren eta kartoiaren birziklapen zerbitzua erabiltzen duten merkatariek % 90eko hobaria edukiko dute zaborren gaineko zergan. ■ A.U.

**ZALDIBAR**

# Inguruko produktuak erakusgai etziko azokan

XIV. Neguko Azoka burutuko dute domekan, erakusketa, salerosketa eta lehiaketa uztartuz

Goizeko 11:00etan zabalduko dute etzi Zaldibarko XIV. Neguko Azoka. Euskal Herria etorbidea jaigune dela, nekazarien uzta izango da eguneko protagonista. Durangaldea, Busturialdea, Lea-Artibai, Debarrena eta Deba-goieneko ekoizleak etorriko dira

**11:00etan zabalduko dute azoka; 15:30 arte egongo da erosketak egiteko aukera**

produktuak eskaintzera, antolatu-zaileek azaldu dutenez.

Goizeko 10:00etan epaimahaiko kideek aztertuko dituzte postuak, eta horren ondoren, 11:00etan, zabalduko dute azoka jendearentzat. Baserriko produktuak -barazkiak, frutak eta okelaz egindakoak-, mintegieta-ko landareak, txakolina, ezti, gazta, ogia eta gozogintza ipini-ko dituzte interesdunen eskura. Sariei dagokienez, 14:00etan esango dute nortzuk diren irabazleak.

Eguerdiko 15:30 arte egongo da erosketak egiteko aukera, ordu horretan emango diote eta azokari amaiera. ■ M.O.

**e t x e a**  
**i a t**  
**i a t**  
**e t x e a**

**PLATERUENA**

Astelehena **-%10 ASTELEHENGORRI**

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatura egunero aukeran:

**Menu ekologikoa**

**Menu begetarianoa**

**Haurrentzat menu erdia**

**Eskatu MENU TXARTELA**

**10. menua OPARI**

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA Landaka etorbidea, 4 A  
- 48200 Durango Jabetza: 946030300

## IURRETA



Durangoko Ezkurdin egin zuten protesta Gruas Artetxeko langileek, eguaztenean.

## Gruas Artetxek 10 edo 14 kaleratze iragarri ditu

Greba mugagabeen daude enpresako 24 langileak, urtarrilaren 12tik

**G**reba mugagabea hasi dute 24 langile dituen Gruas Artetxe enpresan, iragarritako lan-taldearen berregituraketaren aurrean. Enpresak 10 edo 14 langile kaleratuko dituela aurreratu du, ELA sindikatuak jakin eragin duenez. Urtarrilaren 12an hasi zuten greba, eta eguaztenean Ezkurdin elkarretaratzea egin zuten langileek "ziurgabetasun egoera" horren aurrean. Informazio falta ere salatu dute.

ELAK kaleratze "traumatikorik" ez duela gura nabarmendu du, eta ezer zehazteke egon arren enpresagaz batzartzeak direla

**ELA: "Egindako gestio txarrarengatik dago enpresa dagoen egoeran"**

**Bizi duten "ziurgabetasun egoera" eta informazio falta salatu dute langileek**

adierazi dute. Diotenez, "gestio txarraren ondorioz" dago egungo egoeran enpresa: "Beti egon egon dira egoera ekonomiko nahiko txarrean, baina zor handiak ere badituzte". Langileei eurei ere zor

die dirua enpresak, ELAK gogortu duenez.

**Nomina eta dietak zor**

2011ko abenduko nomina ez eze, abenduko eta uztaileko paga extra osoak eta martxokoaren zati bat ere zor die enpresak langileei. ELAK azaldutakoaren arabera. Garraio enpresa bat izanda dietek ere zati handi bat hartzen dute. Horietan "gaur egun, batez beste, langile bakoitzeko 5.000tik 6.000 eurora arteko zorra du enpresak", ELAK adierazi duenez. Protestekin jarraitzeko asmoa dute langileek akordioaren batera heldu bitartean. ■ A.B.

## IZURTZA

## Aurrekontu proposamen adostua mahai gainean

Urtarrilaren 25ean burutuko dute 2012rako udal aurrekontuaren gaineko udalbatzarra. Bilduko gobernuak ogasun batzordean egindako proposamenari EAJk egindako ekarpenak gehituta, iazkoa baino

%1,22 txikiagoa den udal aurrekontua proposatuko dute eguazteneko batzar horretan; guztira, 716.000 euro jasotzen dituen.

Inbertsioen atalean, 33.000 euro aurreikusi dituzte aurrekon-

tu proposamen horretan: Bilduko alkateak aurreratu digunez, Elizalde auzoko uren sarea konponitzeko 20.000 euro; Plan Orokorra berrikuspenagaz jarraitzeko 51.000; etxebizitza sozialak egiteko proiektuaren idazketa eta exekuziorako 107.000; eta herrian autobus geltoki berria atontzeko beste 22.000 euro bideratzea proposatuko dute, besteak beste. ■ I.E.

## MAÑARIA

## Udal aurrekontua onartu dute, Bilduko zinegotzien botoekin

Bariku iluntzean egin zuten 2012 urterako udal aurrekontua eztabaidatzeko udalbatzarra

Bilduren aldeko botoagaz, aurrera egin zuten barikuan gobernu taldearen 2012rako aurrekontuen proposamenak. Proposamen horretan, "herrian gas instalazioak egokitu eta etxebizitza sozialak eraikitzeko lurra erosteko" diru-atalak falta direla adierazita abstenitu egin ziren jeltzaleak.

rentzako gastu handiena izango den horren %75 ordaintzeko diru-laguntza jasotzea aurreikusi dute. "Erronka polita da Plan Orokorra berrikuntza", Bilduko alkatearen berbetan, "eta zelako herri gura dugun erabakitzeke partehartze prozesua abiatzea".

**Elkarteei laguntzak**

Iaz jaso zutenagaz alderatuta, udaletik diru-laguntza handiagoa jasoko dute, orokorrean, herriko elkarteek. Alkateak azaldu digunez, "pilota eskola da aurrean udaletik diru gutxiago jasoko duen elkarte bakarra: pilota eskolari zuzenean 5.000 ematea erabaki dugu". Gobernu taldeak adierazi duenez, "gehiegizko aldea zegoen beste elkarteekin konparatuta pilota federazioak jasotzen zuten 7.000 euroko diru-kopuruan".

Bestalde, herriko argiteria berritzera eta Kultur Etxeko obrak amaitzera bideratzeko 60.000 euroko inbertsioa aurreikusi dute 2012rako aurrekontuetan. ■ I.E.

**Iazkoagaz alderatuta, %12 diru gehiagoko kopurua aurreikusi dute 2012rako**

Iazkoagaz alderatuta, %12 handiagoa den diru-kopurua kudeatzea aurreikusi du udalak.

Guztira, 853.000 euro inguru jaso ditu Bilduko gobernu taldeko zinegotzien bozkarekin aurrera egin zuten aurrekontu proposamenak; horietatik 100.000, herriko Plan Orokorra berrikusteko prozesua abiatzera bideratu gura dute. Endika Jaio alkateak aurreratu duenez, 2012an udala-



Plan Orokorra berritzeko 100.000 euro aurreikusi dituzte. J.F.

**BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango  
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

**GAER DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:  
LABEZOMORROAK, IÑURRIAK, JANTZISIZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

**ALBERDI**  
HARATEGIA HARATEGIA  
DURANGO

**Bertako okela**  
Aurretiaz prestatutako janariak

Askatasun etorbidea, 1  
Tf: 94 681 76 58  
48200 DURANGO

El jamón del DIECINUEVENO CENSO MUNDIAL DE MORCELLAS RECADAS  
BERRAZKO GOGOLITZEN MUNDIAL RECADAS

**ODOLOSTETAN GAILEN - 2009**  
Eminencia en la elaboración de Morcellas

**Alberdi Harategia**

**ALBERDI**  
prekozinatuak

# Bidaia handiak, deskontu handiak

**Ezkongaienezako berezia**

## Thailandia

**iparraldetik hegoaldera**

12 egun - 9 gau. Hegazkina. Turista-kategoriako goi-mailako hotelak, lehen kategoriako goi-mailako hotelak eta luxuzko hotelak (programaren arabera). % 7ko deskontua barne.

LEHEN

~~1.479€~~

ORAIN

**1.090€**

+ 285 € tasetan

## New York eta Riviera Maya

11 egun - 9 gau. Hegazkina. Wyndham Garden Times hotela. Square South\*\*\*\* goi-mailako hotela. Grand Palladium Rivera Maya\*\*\*\* gunea. Programaren araberako erregimena. % 7ko deskontua barne.

LEHEN

~~1.630€~~

ORAIN

**1.440€**

+ 365 € tasetan

**Itsas bidaia bereziak**

## Gran Mediterraneo

Bartzelona, Tolon, Livorno, Chivitavechia, Napoli, Mykonos, Istanbul, Izmir, Pireo, Venezia. Irteera maiatzaren 10ean. 13 egun - 12 gau. Norwegian Spirit itsasontzia. Irteera Bartzelonatik edo Veneziatik. Itsasontzian mantenu osoa.

**875€**

**TASAK BARNE**



Pertsonako oinarriko prezioak logela bikoitzean, kontratuzko adierazi ezean. Galdetu datak, irteerako aireportuak eta gainerako baldintzak antolatzaileei. Kudeaketa-gastuak (nazioartekoak 8€). Plaza mugatuak. ENK 618.

**EROSKI** bidaiak



ELORRIO

# Segurtasun-protokolo bi sinatu ditu udalak Ertzaintzagaz

Gaueko zaintza eta genero-indarkeria kasuetarako dira protokoloak

**E**lgorrioko Udalak eta Durangoko Ertzaintzak koordinazio protokolo bi sinatu dituzte. Herritarren segurtasuna hobetzea eta genero-indarkeria

**Ertzaintzak edukiko du zaintzaren ardura, gaueko 22:00etatik 06:30era arte**

kasuen aurrean jokatzeko era ezarzteza dute helburu. Koordinazio maila altuena lortzeko eta administrazio autonomiko eta lokalaren giza-baliabideen eta materialen



Udala, Udaltzaingoa eta Ertzaintzaren ordezkariak batu ziren joan zen barikuko sinatze-ekitaldian.

erabilpen eraginkorra bilatzeko gauzatuko dute elkarlana. "Gora-behera baten aurrean, Elorrioko herritarrek edozein orduetan poliziaren laguntza izatea gura dugu", azpimarratu du Ana Otadui alkateak. Horrela, Ertzaintza izango da ardura hori edukiko duena, udaltzaingoa laneguna bukatu ondoren, 22:00etatik 06:30 arte. Beraz, Elorriok zaintza poliziala izango du eguneko 24 orduetan.

**Otadui: "Herritarrek edozein orduetan poliziaren laguntza izatea gura dugu"**

**Indarkeria matxista**

Sinatu den bigarren protokoloa herrian izan daitezkeen etxeko indarkeria eta genero-indarkeria kasuak kudeatzeko izan da. Kudeaketa poliziak gertakizunaren berri duen unean hasiko da, eta epai irmoa egon arte jarraituko du, biktimak babesteko helburuagaz.

Kasu horietan, espedientea izapidetzerakoan titularrak Durangoko Ertzaintza izango da, bere udal-mugapean egindako aktuzioen bitartez eta udaltzaingoa bitartez jasotako kasuetan. Horregaz batera, bi taldeek elkarrekin egingo dute lan biktimak "era onenean" babesteko, azaldu dutenez. ■ M.Onaindia

OTXANDIO

# Herritarrek erabakiko dute udalaren kultur eskaintza

Aste honetan udaleko Kultura Batzordeak inkesta bat banatu du otxandiarren buzoietan. Inkesta horren helburua herritarren kultur arloko gustuak ezagutzeko da, gero horien arabera eskaintza osatzeko. Herritarrek ostiralaren 6ra arte dute galderei erantzun eta udaletxean entregatzeko epea. Gura duenak udaleko web gunean ([www.otxandio.net](http://www.otxandio.net)) ere eskuragarri du inkesta, eta internet bidez eman dezake kultur eskaintzari buruzko bere iritzia.

**Buzoietan banatu dute inkesta, eta web gunean ere eskuragarri dago**

Inkestan, lehenengo datu pertsonalak eskatzen dira eta ondoren orain arte udalak eskaini duen kultur eskaintza baloratzeko aukera dago. Amaitzeko, etorkizuneko kultur eskaintza zer arlotara bideratu beharko litzatekeen galdetzen dute: antzerkia, hitzaldiak, jaia, erakusketak... ■ J.D.

# 30.000 euroko laguntza kooperazio beharretarako

2011n garatutako proiektuak finantzatzeko da; 2012rako 40.000 euro aurrekusi ditu udalak

Udalak 28.425 euro bideratu ditu 2011n, kooperaziorako proiektuen diru-laguntzetarako. Hain zuzen ere, herriko hiru erakundek jaso dute ekarpen hori: Kainaberak, Sahararen aldeko LAJWAD elkarteak eta Elorrioko Kirol Taldeak.

Kainaberak 21.975 euro jaso ditu bost egitasmo finantzatzeko. Kolonbian umeentzako jantokiak, premia bereziak dauzkaten umeak

eta emakumeen ahalduzkoak dituzte langai. Osasun baldintzak hobetzeko etxebizitzaren bueltan dabilta beharrezan Nikaraguan, eta Errusiako umeak etxean hartzeko egitasmoa ere badute mar-txan.

Sahararen aldeko elkarteari 4.000 euro eman dizkio udalak, AMGALA 2011 deituriko proiektuaren lehenengo fasea finantzatzeko; kirolgunea mugatzea dute helburu. Kirol taldeak, berriz, 2.450 euroko laguntza hartu du Kolonbiako Bogota hirian, hirugarren adinekoen harira garatutako proiektu birengatik. ■ M.O.

**Kainaberak, Sahararen aldeko elkarteak eta Elorrioko Kirol Taldeak jaso dute laguntza**

GARAI

# Errematako dirua, Caritasi eta elizako gastuetarako

1.130 euro batu zituzten San Anton egunez



Elizabarrin batu ziren herritarrek produktuak eskuratzeko.

Eguraldia lagun izan zuten garaitarrek martitzenean. Mezaren ondoren, abadeak lurrak eta eskaintzan ipinitakoak bedeinkatu zituen, enkanteari ekin aurretik. Txakurkumeak eta oilandak piztu zuten interesik handiena; lehenagatik 60 euro eman zituzten, eta bigarrenagatik 40. Edozela ere, herriko txorizo, gazta

**Mezaren ondoren, abadeak lurrak eta eskaintzan ipinitakoak bedeinkatu zituen**

eta pastelengatik ere ika-mika biziak izan zituzten partaideek. Abadeak berak ere eroan zuen etxera baba, txorizo eta abarrez osatutako sorta bat. Batutako diruaren erdia Caritasi laguntzeko erabiliko dute, eta beste erdia elizako gastuetarako. ■ M.O.

**Hurrengo eraikuntza**

**DURANGO**

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

**Elorrioren ere aukera onak**

**NACEX**

San Roke, 12 behea (48200 DURANGO)  
Tel.: 94 620 01 62  
Mug.: 666 444 101

4810.operativa@nacex.es  
[www.nacex.es](http://www.nacex.es)

**Informazio orokorra: 900 100 000**

**Hemen agertu gura badozu deitu!**

**94 621 79 02**



## Durungaldean labor

### Juan Orobiogoitiako ikasle bi Gasteizko konferentzian

Urtarrilaren 26an eta 27an Gasteizen burutuko duten Estatu Mailako Gazteen 1. Konferentzian (CONFINT) Iurretako Juan Orobiogoitia institutuko ikasle bik parte hartuko dute. DBHko ikasle horiek beste 24gaz batera euskal ordezkariak osatuko dute *Zain dezagun planeta* lemapean egingo diren jardunaldietan. Bileran aukeratuko dira Bruselara (Europako Konferentziara) joango diren ordezkariak ere.

### Ehun txartelen truke, JAEDeko autoa sari

Suministros Balmaseda Durangoko enpresan erosi dute JAEDeko zozketaren sari nagusiko zenbakia. Kotxearen bila joan direnean azaldu dutenez, Balmaseda Balmazategi neba-arreben familian aspaldiko tradizioa da urtero ehun txarteleko sorta erostea. Neba-arrebetako bi azaldu dira kotxea jasotzera: Julian eta Isabel.



### Emazteari ustez eraso egitearren atxilotuta

Ertzaintzak zapatuan, 08:00ak inguruan, atxilotu zuen 55 urteko gizonezko bat Iurretan, emazteari ustez eraso egiteagatik. "Auto baten barruan eztabaida izan ondoren" egin zion eraso emakumeari, Ertzaintzaren arabera. Aurrerago eragin zizkion zauriak eta Galdakaoko erietxera eroan zuten.

## BERRIZ

### Arrakasta izan dute Nekazal Olinpiadek

400 lagun batu ziren martitzenean frontoian, San Antonio eguneko jai hurretik jarraitzeko

**D**onien atxa astelehenean kenduko dute Olakuetan, eta afora ere egingo dute jaiak ondo agurtzeko. Barikutik astelehenera bitartean, aldiz, LVI. Idi-proben Txapelketa ere garatuko da. Edozelan ere, egitarauko ekintza gehienak bete dituzte berritarrek. Asteburuan kirola, gastronomia eta musika izan zituzten, besteak beste, gozagarri. Martitzenean, San Antonio egunez, Nekazal Olinpiadak egin zituzten frontoian. Iaz berreskuratu zituzten antolatzaileek joko horiek, eta aurten arrakasta lortu dute 400 lagun batuta. Bost laguneko bost

taldek parte hartu zuten honako probetan: txokor-batzea, hiruko lasterketa, begiak estalita laguna karretilan eramatea, txapel jaurtiketa eta 25 kiloko zakua eramatea. Zekorrek taldea izan zen garaile, 300 euroko saria poltsikoratuz. Bigarrena Bostak izan zen, 200 euro jasoz. Merinas taldeari 100 euro eman zizkioten hirugarren izatearren, eta Txurras eta Sateliteak geratu ziren laugarren eta bostgarren, hurrenez hurren.

#### Ikusle ugari

Giro onean burutu zituzten olinpiada bereziak. "Uste genuen baino jende gehiago etorri da. Parte hartu duten koadrilen eta frogak ikustera etorri diren auzotarren artean giro paregabea sortu da", azaldu zuen herriko alkate Roland Isoirdek. ■ M. Onaindia

**Zekorrek taldea izan zen garaile Nekazal Olinpiadetan, 300 euro poltsikoratuz**



Nekazal kirolari bat, karretilan hartu eta begiak estalirik tiraka.

### Ezetz BBK-ko hauteskunde prozesuan parte hartzeari

BBKren asanbladaren %50 berri- tu egin behar dela-eta prozesu hori martxan dagoela jakinik, Bilduk eguaztenean ospatutako ohiko osoko bilkuran proposatu zuen udala hautes-elkarte batean sartzea, Bizkaiko kutxaren hauteskundeetan parte hartzeko. Mozioaren arabera, Berrizek Atxondo, Iurreta, Otxandio, Zaldibar, Ermua eta Zarautzegaz sortuko luke elkargoa.

**Bilduk eguazteneko bilkuran proposatu zuen udala hautes-elkartean sartzea**

Bozketan berdinketa irten zen, Bilduren aldeko bost botoekin eta EAJren aurkako bostekin; PSE-EEko zinegotzia ez zen bilkurara joan. Alkatearen botoari eskerrak atzera bota zuten proposamena. ■ M.O.

### Elikadura burujabetza aztergai, berbaldi bidez

Datorren egunean ipini dute berbaldirako zita, Kultur Etxean, arratsaldeko 19:30ean hasita

Oka kultur elkarteak eratu, elikadura burujabetzaren gaineko berbaldia burutuko dute, datorren egunean, Kultur Etxean. Erralde hiltegiak Jaber Azpitarte, EHNE sindikatuko Unai Aranguren eta Igor Mendiolarai baserritar gaztea mintzatuko dira.

**Jaber Azpitarte, Igor Mendiolarai eta Unai Aranguren mintzatuko dira**

Gaur egungo ideia berri batzuk ere mahaigaineratuko dituzte; hala nola, *slow food* edo

kontsumitzaileen taldeak. Antolatzaileek diotenez, elikadura burujabetzaren filosofiagaz "merkatu-sistema justuagoa" eraikitzen da. "Guk aukeratzean zer jaten dugun, gukerabakitzen dugun zelan izan behar duen ekoiztua: zer gauden prest onartzeko eta zer ez. Eta guk gastatutakoak nori egiten dion mesede erabakitzen dugu. Horrela zaintzen dugun lehenengo sektorea, etorkizunean ere hala izan dadin", azpimarratu dute. Bestalde, "elkagai hauek produzitzeko sistema naturalak erabiltzen dira, eta, garraioan aurretuz, gure lurra ere errespetuz tratatzen dugu", gaineratu dute. ■ M.O.

## ATXONDO

### Desfibrilagailu bat eskuragarri dago udaletxean

Desfibrilagailuak ekoizten dituen enpresa batek proba pilotu baten parte izateko eskaintza egin dio Atxondoko Udalarari. Udalak eskaintza onartu, eta, adostutako akordioaren bidez, datozen bost urteetan desfibrilagailu bat egongo da udaletxean. Laster, datorren hilean zehar segurutik, aparatu mediku hori zelan erabili ikastaroa abiatuko dute. Zierbena eta Munitibar dira proiektu pilotu horretan parte hartuko duten beste herri batzuk.

Desfibrilagailuak GPS sistema du, kokapena jakinarazteko, eta larrialdi zerbitzuekin telefono bidez hartu-emanetan ipintzea ahalbidetzen du. ■ J.D.

### Atx-Azpiren lehen mus txapelketa Jauregik eta Gorospek irabazi zuten



Iazko Gabonetan Axpeko Atx-Azpi elkarteak mus txapelketa antolatu zuen. Orduko hori izan zen txapelketa hori antolatzen zuten lehengo aldia, eta hainbat bikotek parte hartu zuten. Irabazleak, ordea, bikote bakarra behar zuten, eta lehiaketako parte-hartzaile guztien artean Tomas Jauregi eta Leandro Gorospe izan ziren; eurentzat izan zen garaikurra.

**momotxo**  
t a b e r n a  
plateruen plaza, 12 • 48200 durango  
tel.: 94 681 10 06

**URTAINA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK  
Aukera ezazu hemen zure erregalua  
Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

"BODEGUILLA"  
TRAÑA-MATIENA  
Tfnoa. 94 681 43 85

## BERBAZ &gt;

**“Tutoreok informatu baino ezin dugu egin; ikasleek eurek erabaki behar dute zer ikasi”**

Eguen honetan Unibertsitate Orientazio Azoka eduki dute Jesuitak ikastetxean. Herrira zabaldutako azoka izan da.

**B**igarren batxilergoa ikasle askorentzat burukomin asko eta handiko ikasturtea izaten da. Ikasketetan zer bide hartu? Batzuek hasieratik argi izaten dutela azaldu digute Juanan Carballo eta Cristina Luengo Jesuitak ikastetxe-ko irakasleek. Beste asko, berriz, zalantza josita ei daude. Unibertsitate Orientazio Azokan gertuko unibertsitateen eskaintzen eta lan arloko irteeren berri eman dute.

*Unibertsitateak ikastetxera gonbidatu izan dituzue lehenago ere, baina aurten azoka egitea eta Durangora zabaltzea erabaki duzue.*

Klase orduetan etortzen ziren lehenago; hainbat egunetan etortzen ziren aretora aurkezpena egitera, eta listo. Aurten egun batean denak gonbidatu eta beste ikastetxeetara zabalik egitea pentsatu dugu. Arratsaldeko ordutegian egin dugu, horrela ikasle eta gurasoek etorri ahal izateko. Uste dugu gure taldearen barruan prest egongo ginatekeela beste eskolekin adostu eta Durango mailako zer edo zer antolatzeke. Bilbon-eta egiten dira horrelakoak.

**“Prest egongo ginateke beste eskolekin adostu eta Durango mailako azoka antolatzeke”**

*Bigarren batxilergoa nahiko ikasturte gaitza izaten da ikasleentzat. Ikasketak aukeratzeko orduan zalantza handiak izaten dituzte?*

Gehienek nahiko argi izaten dute. Zalantza dabilzan asko ere badaude, eta duda horiek argitzeko bidea informatzea da; eurek erabaki behar dute. Askotan begira gelditzen dira, guk erantzun bat ematea itxaroten-edo. Gure lana, baina, ez da erantzun bat ematea; ez da “Zuk ingeniari-ritza egin beharko zenuke” esatea, ezpada informatzea: ingeniari-ritzak zer aukera dituen, zer mota dauden, zertan desberdintzen diren...

*Erabakian pisua edukiko dute gustuek, eta baita lan mundurako aukerak ere...*

**Cristina Luengo:** Nik beti esaten diet gustatzen zaien gauza bat egiteko, hori betirako izango baita. Gustoko baduzu, borroka egin hori lortzeko. Irteerei buruz ere galdetzen digute, baina hori gaitza da esatea, ez dakigulako bost urte barru zelakoa izango den egoera. Hobe da gustuko zeozertan hastea, eta gero iku-



**“Ikasketa bat aukeratzeak ez du bidea mugatzen; beharbada lehenago aukera hori ezagutu behar duzu, gura duzuna hori den ala ez ikusteko”**

siko duzu lan aukerak dauden ala ez. Karrera bat lan aukerengatik bakarrik aukeratzea ez da egokiena. Dena hartu behar da kontuan, baina neurri batean.

**Juanan Carballo:** Geroago eta gehiago, garrantzitsuena formazioaren kontua dela pentsatzen dut nik. Batek daki zertara dedikatuko zaren gero. Formazioa eta hizkuntzak behar direla nabarmentzen diet ikasleei. Ingeniaritza bat egin dezakezu, eta amaitu dezakezu klaseak ematen edo pizzeria batean lanean.

*Krisiagatik eta lan munduagatik kezkatuta daude?*

J.C.: Ez dugu uste horrelako kontuetan pentsatzen dabilzanik. Ikasketak amaitu eta gero edukiko dute kezka hori, baina orain euren ardura ez da hori. Hizkuntzetan-eta formatzeko esaten diegunean, esaten dute: “Egingo dut aurrerago”; “Ikusiko dut”... Oraindino egunerokoan bakarrik daude.

*Ikasle ohien mahai-ingurua izan duzue...*  
J.C.: Aspalditik egiten dugu, eta ondo egoten da esperientzien berri

**Cristina Luengo eta Juanan Carballo**

- Jesuitetako irakasleak
- Bigarren batxilergoko tutoreak

**“Karrera bat lan aukerengatik bakarrik aukeratzea ez da egokiena”**

izatea. Denetik ekartzen ahalegintzen gara: ikasleak eta lanean dabilzanak, zikloak egin dituztenak, masterretakoak... Esperientzia horiek entzunda, ikusi daiteke hasieran ziklo bat edo gradu bat aukeratzeak ez duela biderik mugatzen ez moztzen.

*Erabaki bakarrik pisu handia dauka....*

C.L.: Bai, baina zer edo zer ikasten hasi eta ez bazaizu gustatzen, gero aukera edukiko duzu aldatzeko. Beharbada behar duzu hasierako aukera hori zelakoa den ikustea, benetan gura duzun ala ez jakiteko. Garrantzitsua da ateak eta burua ez ixtea. Gura duzuna ezin baduzu egin B plan bat eduki eta topatuko duzu zure bidea.

J.C.: Presioak eta estresak jota ibiltzen dira ikasleak. Ni saiatzen naiz presioa kentzen; selektibitateko azterketari, batez ere: denek aprobaten dute azkenean. Presio nagusia orain horretan dago, karreretan eskatzen duten notei begira.

*Gaitza izango da oso galduta dagoen ikasleari aholkuak ematea.*

C.L.: Batzuetan oso aukera desberdinak dituzte buruan. Biak gustatu arren, adibidez, administrazioak eta ingeniari-ritzak ez dute zerikusirik. Horregatik, Orientazio Azokan saio praktikoak eduki ditugu, ikasketa bakoitzaren ondoren zer lan egin daitekeen argitu guran. ■ A.Ugalde



12.000 BAIETZ!



# EGIN HARPIDEDUN!

ANBOTO ETXERA ETA ZU ASTEBURU-PASA EROANGO ZAITUGU



Azaroko irabazlea: Egoitz Larrinaga



Abenduko irabazlea: Leire Darretxe

EROSKI BIDAIKek eskainitako asteburu pasak irabazi dituzte Egoitzek eta Leirek Anbotoko harpidedun eginez. Urdaibai inguruko Murueta herriko Ibaigune hotelean hain zuzen ere.



Ibaigune-hotela-jatetxea

2012ko harpidedun berrien artean ere EROSKI BIDAIKek emandako 6 asteburu-pasa zotz egingo ditugu, eta Anbotoko harpidedun guztien artean aste bateko egonaldia Kanariar irletan.

## HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

**1** [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera idatzi.

**2** 946816558 telefonora deitu.

**3** Kupoia bete eta bidali Anbotora.

**ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA**



Izena ..... Abizenak .....

Telefonoa ..... E-posta .....

Helbidea..... Herria.....

# IRITZIA >

gutunak@anboto.org

## Erralde ez itxi

Harr ituta nauka, azken urte luzeetan, Erralderen aurka hainbatek erakutsi duten amorruak. Egiturazko arazo larriak omen dauzka, eta horren larriak ez diren beste hainbat ere bai, eta, agian, egia izango da. Hala ere, beste enpresa askok eta askok dituzten egiturazko arazok pertsonen segurtasuna eta osasuna jartzen dituzte kolokan eta horiei, urteak joan eta urteak etorri, moratoria bat eta gero beste bat ematen diete.

Erralde katenaria arazo bat dauka, egitura gurutzatua dauka, eta hori horrela ezin omen da izan. Eta, gainera, badakite-nean datozen urteetan arazo hori gainditu eta hiltegi berri bat edukiko dugula Berrizen. Argi diogu, ezin daiteke helburu politiko bat 19 langileren, Bizkaia osoaren eta 1. sektorearen kaltean lehenetsi.

Guk gure arrazoiak oso argi dauzkagu, asko dira, baina hona hemen batzuk:

### Langileengatik

19 langileren etorkizunarekin jolastea oso larria da. Orain dela 7 urte inguru, langile horiek egoera antzekoan egon ziren; Erralde itxi zuten eta langabeziara kondenatu zituzten bi urtez, egoera horrek sortzen duen ezinegon eta urduritasun guztiarekin; eta jakin badakigu, bizi dugun egoera ekonomiko kritikoa honetan, lana lortzeko aukerak zer-nolakoak diren.

Langile zuzenak soilik ez, Erralderen inguruan, langile ez-zuzen ugari dago. Jende hori ere egoera larrian egongo da; galdera ikur handi bat buru gainean eta etorkizunari aurre nola egingo dioten jakin gabe.

Bizi dugun krisialdi honetan funtzionatzen duen enpresa bat ixtea bera, delitua izan beharko litzateke; beraz, langileengatik bada ere: Erralde ez itxi!

### Herriagatik

2005. urtean, Erralde itxi zutenean, herri oso bat altxa zen proiektuaren defentsan. Herriarrok esan genuen Erralde zabalik behar zuela. Gauzak horrela, ezker abertzaleak herriarrok eskaera horri men egin eta Erralde zabalik mantentzeko zeuden aukerak aztertzen hasi zen.

Eta, zorionez, aukerak aurkitu zituzten. Lehenengo Durangoko Hiltegi zaharra berriki zuten, eta langileak lanera bueltatu ziren. Eta, gero, 15 udalerriren artean Berrizen Erralde berria eraikitzeko lurak erosi zituzten.

Bizkaian 1.155.241 pertsona bizi gara, eta 15 udalerririk horietan 15.000 besterik ez. Beraiek mantendu dute proiektua bizirik, bizkaitar askok kontsumitzen dugu bertako okela, Bizkaian sakabanatuta daude zerbitzua erabiltzen duten baserritarrak eta herri guztietan okela hori saltzen duten baserritarrak. Zergatik daramate, orduan, gutxi batzuk proiektu horren karga?

Bakoitzak gure udalari ea zergatik ez den proiektuaren parte galdetu behar diogu; eta burugogor jarriz gero eta eskaera bete behar bihurtzen badugu, hainbat dira oraindik ere sartzeko dauden udalak, beraz, aukerak badaudelako eta herriak horrela behar duelako: Erralde ez itxi!

### Sektoreagatik

Horren zerbitzu zabala ematen duen Bizkaiko hiltegi bakarra da Erralde; Zorrotzakoa ere itxi zuten. Agian, batzuen "makroproiektuen" ondorio izango da, edota gizarte eredu honek 1. sektoreari eskaintzen dion etorkizunaren isla, edota agian bietatik apur bat. Arrazoiak edozein izanik ere, ez zaigu ongi iruditzen.

Berrizko proiektua egingarria da, are gehiago, egin egingo da. Lehenago edo beranduago, Bizkaia zerbitzu publikoa eskai-

niko die baserritar guztiei. Beraz, bide horretan trabak jar-tzea beste helbururik ez dutenei, indarrak ez galtzeko aholkatu gura diet. Ez baduzue lagundu nahi, ez lagundu, baina ez trabarik jarri: Erralde ez itxi!

Eulate Zilonizurrekoetxea - Durangaldeko LAB

## Kaixo lurretarrak

Amaitu da 2011. urtea, eta beragaz lurretako bandera-ren mendeurreneko ospakizunak ere joan dira.

Antolatzaileon aldetik gure eskerrik beroenak, halan edo holan, laguntzaile eta partaide izan zarenei: Udaletxea, Bizkaiko Diputazioa, Smurfit Kappa, Gaurisa, Zarate Elexpe, Iurreta Kopistegia, beste laguntzaile, herriko talde, herritar guzti-guztiori.

Ekintza guztiak ez dira irten guk uste bestean eta horregatik parkamenak eskatzen doguz. Baina ahalegin ugari be egin dogu guztiongan "iurretarrak" izatearen harrotasun pitin bat heldu zeiten, eta uste dogu lortu ere lortu dela. Iurretan bizi garenok iurretakoagoak sentitzea izan da gure ametsa, eta bete delakoan gagoz.

Eskerrik asko. Gora zuek! Gora Iurreta!

1911-2011 Mendeurreneko Batzordea

## Herriaren segurtasuna

Ondo argitu nahi dut istripua gertatu zen unean eta gure herrikoa eta laguna zen emakume bat hil zenean, langak jaitsita zeudela, eta behar zen moduan zebiltzala. Istripua gertatu ondoren, pertsona batzuek egin dituzten oharrek ez zaizkit oso egokiak iruditzen, ezta etikoak ere; adibidez, Bilbao jaunak esan dituenak, gertatutakoa argitu gabe baitago oraindik.

Udalan egunero egiten dugun lanean, herritarren segurtasunak lehentasun osoa du. 2011. urtean hiru akats izan dira langak jaisterakoan; horietatik bi gizakien hutsegiteak izan dira, eta bestea, berriz, akats mekanikoa. Akats horiei buruzko informazioa eskatu eta jaso ondoren, eskaera egin dugu segurtasun-neurriak areago sendotu daitezten eta honelako akatsik egon ez dadin hartzen diren neurrien berri eman diezaguten.

Bestetik, argi azaldu nahi dugu sozialistek bi urte gutxi gorabehera daramatzagula Eusko Jaurlaritzan. Bi urte hauetan trenbidea lurperatzeko obra abiarazi da -220 milioi euroko obra-, eta lan guztien %74 bete da. Aurreko gobernuek oinordetzan utzitako obra da hori; oinordetzan utzia, baina aurrekontuetan euro bat ere jaso gabe. Trenbidea lurperatzeko lana lehentasun osokoa da durangarentzat; guretzat, niretzat. Eta egungo egoera ekonomikoa den bezalakoan izan arren, obra betetzen ari da, eta ez da inoiz geldiarazita egon. Gauza bat baizik ez da alde batera utzi: 50 milioi euro baino gehiago balio zituen eraikin erraldoia eraikitzeko lana.

Ez dugu Aldundiko Bilbao jaunak bezala jokatu, berak krisia amaitu arte geldiarazi baititu hiru korridore erradial eraikitzeko lanak; Ermuko ingurabidea, eta Ondarroa eta Markina eta Boroa eta Igorre lotuko dituzten ardatzak.

Idoia Agorria - PSE-EEko zinegotzia

## Sei hankako mahaia



Juan José Gastañazatorre PP

## Nahikoa da

Landakoko pasabidean pertsona baten heriotza ekarri duen istripu triste eta zoritxarrekoak berpiztu egin ditu durangoko hainbat ahots publiko, gure herrian trenalperatzeko lanak amaitu daitezkeen eskatzen dutenak; guztiak gogoratuko dutenez, hamarkada bat baino gehiago atzeratu diren lanak.

Eusko Jaurlaritzak hainbat aldiz aztertu du lan hauen exekuzioa, eta frogatu denez, herriko biztanleentzat hil ala bizikoa da. Jaurlaritzak Hirigintza Batzordeari jakinarazi zionez, lanak amaituta egon behar ziren 2009ko Gabonetarako, gero 2010eko abendurako, eta azkenik 2011ko mahatsak jango omen genituen lanak amaituta. Orain 2013rako gauzatuko omen da. Nahikoa da!

## Lanak garestiak dira, baina ez ziren horrenbeste atzeratuko Eibarren egin beharko balira

Badakigu lan hauek garestiak direla, baina uste dugu ez zirela horrenbeste atzeratuko Eibarren egin beharko balira; hango alkate izan zen orain Herri-lan sailburu den Arriola jauna.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, onartu egiten du azken bi hiletan hiru anomalia gertatu direla Durangoko pasabideetako hesien funtzionamenduan, baina, ez du aipatu bertako Alderdi Popularrak zenbat alditan salatu dituen egoera kritikoa; adibidez, hainbat oinezkoak besoak jasota geratu behar izan duenean tren, hesiak jaitsi barik zeudelako. Halako testigantzak zeharka begiraten dituzte agintariak, gezurrak direla esanez.

Jaunok, Durangoko biztanleek bizi duten egoerari baino ez zenioke begiratu behar, "nahikoa da" esanez ari baitira udalerrian trenalperatzeko lanen atzerapenak direla-eta.

\*Erredakzioan itzulia

### Laguntzaileak:

Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

**anboto**

durangaldeko  
astekaria

2012ko urtarrilaren 20a  
10. urtea - 443 zk.

**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea.

**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.

**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.

**Administrazioa:** Miren Abasolo.

**Publizitatea:** Goretzi Alonso, Amaia Huarte, Ixaso Altuna

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.

**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.

**Testu zuzentzailea:** Igor Elortza.

**Argazkilaria:** Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

@anbotokultura

# KULTURA >

## MUSIKA > ELKARRIZKETA

**Zer eskainiko diozue zapatuan Arriolara gerturatzeko denari?**  
Disko berriko hamar kantak eskainiko ditugu, batetik, eta lehena-goko kanta batzuk ere bai, piano, txelo eta gitarra espainolagaz jotzeko moldaketa berriekin.

**Orain arte zugaz lotu duguna baino formatu akustikoagaz zatoz Elorriora.**

Hori da. Guztiz akustikoa da, hemen ez dago batere elektrizitate-terik: ez dago baxurik, ez dago bateriarik. Eskema rockero klasikotik kanpora dago erabat.

“Inportantzia guztia kantari berari ematea nahi nuen: berbei eta musikari”

**Maite Arroita jauregi eta Ibon Rodriguezegaz diharduzu. Zelan sortu da elkarlan hori?**

Ibon izan da Maite eta bion arteko lotura: urte asko dira laneko kafe makinan Ibon ezagutu nuela... Ibonek ezagutzen zuen Maite, bere bitartez egin genuen kontak-tua, eta hasi ginen hiruok.

**Kantak prest zeneuzkela batu ziren eurak proiektura?**

Bai, gehientxuenak prest zeudela batu zitzaizkidan, eta hasi ginen konponketak prestatzen, eta joan den udan egin genuen grabazioa.

**Zuzenekoetarako zer asmo? Emanaldi asko lotu dituzue?**

Gure asmoa jendaurrean ahalik eta gehien jotzea da; hori da gogokoena duguna. Diskoa bera ere horretarako egin dugu. Hori da egiten diharduguna, eta horretan gura genuke jarraitu. Asteburu hone-

# “Akustikoa da diskoa: eskema rockero klasikotik kanpora dago”

Idazlea eta musikaria, sorkuntzan beti alor ezezagunak deskubritzea helburu duena da **Xabier Montoia** gasteiztarra. “Beti disko bera egitea da, sorkuntzari dagokionez, okerre-na”, bere ustez, eta horrela erakusten du bere ibilbideak: M-ak taldean punka eta elektronika ere jorratu zituen, eta akustikoan dator Elorriora, bihar

tan, esaterako, Azkoitian eta Elorrion joko dugu.

**Diskoaren grabazioekin sekula ez duzula gozatu irakurri dizugu. Oraingo hau zelan joan da?**

Gozatu dudarik ez dizuet esango, baina, behintzat, sufritu ez dut egin, eta asko da hori. Aldaketa handia izan da aurreko diskoagaz alderatuta. Inoiz baino errazago joan da estudioko lan guztia.

“Jendaurrean ahalik eta gehien jotzea da gure asmoa, hori baita gogokoena duguna”

**Zer berezitasun daukate disko honetako hamar kantek?**

Ez dira kanta rockeroak, beste era batekoak dira: klasikoagoak, nolabait. Inportantzia guztia kantari berari ematea nahi nuen; berbei eta musikari. Hori izan da sortzerakoan gogoan izan dudana.

**Badiharduzu datorren diskora-ko ideiarik lantzen?**

Literaturarako ideiak darabilzkit orain. Etorkizunean beste diskorik egongo den ez dakit, baina balego, honengandik desberdina litzatekeela bai. ■ I. Esteban



L.G.

## “Kanta asko egin behar izan ditut nahi nuen giroko hamar hartzeko”



Estudioan gauzak gehienetan presiopean egiten diren arren, giro oso lasaia lortu zuten *Montoia ren mundu miresgarria* diskoaren grabazioan, musikari eta idazle gasteiz-tarrak kontatu digunez: “Oso modu sinplean egin genuen, eta oso erla-xatuta egon ginen”.

Diskoko hamar kantak sortze-ko prozesua, aldiz, gaitzagoa izan dela aitortu du: “Kanta asko egin behar izan ditut nahi nuen girokoak ziren hamar abestiak hartze-ko”. Sekula egin dituen kanta onen-tzat ditu diskokoak Montoia, nahiz eta ez den erraza izan diskoko “sin-pletasun horretara ailegatzea”.

Kontzertuetan ere inoizko sen-tzazio onenak ei dauzka Montoia: biluztasun horretan akatsak ere asko igartzen diren arren eta arris-ku puntu bat ere badaukan arren, oso gustora dihardu; “Saio bakoitza hil ala bizikoa delako”.

Sekula egin dituen kanta onentzat ditu diskokoak Xabier Montoia berak

Letren ahoskera lako kontue-kin berezikisaiatzen da: “Inportan-tea da hitz bakoitza ondo uler-tzea”. Oso irekiak dira Xabier Mon-toia ren disko berriko kanten letrak: entzulearen interpretaziora oso zabalik geratzen direnak. “Ez naiz sermoilari”, dio: “Ez diot inori non-

dikjo esango, norberak ikusi behar baitu bere bidea”.

*Niez naiz Xabier Montoia* dis-koa kaleratu zuenetik ia hamarka-da bat igarota, eta musikatik guz-tiz aldentuta bi urte igaro ondo-ren etorri da disko hau.

Ironikoa da diskoaren *Mon-toia ren mundu miresgarria* izen-burua, baina badauka azalpenik: diskoa amaitu zuenean hau azke-na izango zela oso seguru zegoela azaldu digu musikariak –nahiz eta orain ez duen hain argi ikusten–, eta M-ak-ekin grabatu zuen lehe-nengo diskoa *MMM* izan zela.

“Zirkulua ixteko” modu beza-la pentsatu zuen, azaldu digunez, izenburuko ‘M’-en joko hori. Nahi-ta egin barik, kanta guztietan “mun-dua” hitza agertzen zela ohartu zelako ere ipini zion *Montoia ren mundu miresgarria* izena lanari.

MUSIKA > EMANALDIA

# 'Haize berri bat' zabalduz dator Etxe bere herriko kultur etxera

Urtarrilaren 21ean, 20:00etan hasita, aurkeztuko du Etxek 'Haize berri bat' disko berria



**A**zaroan, Durangoko Liburu eta Disko Azokan, Plateruenean eskaini zuen kontzertuan, aurkeztu zuen azken urteetan Etxe proiektuan lagundu duten taldekideengandik aparte *Haize berri bat* diskoagaz abiatu duen ibilbide berria Iñaki Etxezarraga "Etxe" berriztarrak.

Urtarrilaren 21ean, 20:00etatik aurrera, kontzertuan eskainiko ditu Etxek hirugarrena duen disko horretan bildutako kantak; herrikideen aurrean, bere herriko Kultur Etxean.

Hirugarren diskoko kantak eskainiko dizkie herrikideei eta lagunei

2011 urte amaieratik egiten diharduen eran, akustikoan jardungo du

Kanta zaharren moldaketak eta azken hileetan sortutako kanta berriak uztartzen dituen disko berri honeguz, 2011 urte amaieratik "kontzertu txikiak, gertukoak", akustikoagoak eskaintzen dihardu berriztarrak, eta horrela egingo du Berrizko Kultur Etxean bihar iluntzean eskainiko duen zuzenekoan ere.

Azken hilabeteetan, besteak beste, Pontevedra edo Segovian izan da kontzertuak eskaintzen Etxe. Euskal Herriko oholtzetan da berriro, Berriztik abiatuta. ■ I.E.

ARGAZKIGINTZA > LEHIAKETA

# San Blas eguneko argazkien hirugarren lehiaketa, Abadiñon

Otsailaren 16ra arte aurkeztu ahal dituzte parte-hartzaileek otsailaren 3an egindako lanak



250eko bigarrena banatuko dituzte antolatzaileek. Bestetik, epaimahaiak herriko argazkirik onentzat hartzen duen argazkiak ere 150 euroko saria jasoko du.

Argazki bi bidali ahalko ditu argazkilarik bakoitzak lehiaketara: 30x40 zm-ko euskarri zurrunean. Errota kultur etxean eta Udal Mediatekan zein posta arruntez aurkeztu ahal dira lanak, otsailaren 16a baino lehen.

Errotan edo Mediatekan, otsailaren 16a orduko aurkeztu behar dira lanak

Otsailaren 22an, 19:00etan, Txanpota kultur etxean burutuko dute sari banaketa ekitaldia; egun horretatik martxoaren 9 arte, saria jaso duten lanak zein epaimahaiak aukeraturako beste hainbat erakusketan ipiniko dituzte.

Iaz 42 argazkizalek aurkeztu zituzten euren lanak lehiaketa honetara, eta aldamenen ikusgai duzuen Ignacio Conde Martín abadiñarraren lanak jaso zuen lehenengo saria. ■ I.E.

Otsailaren 3an Abadiñon ospatuko duten San Blas eguneko argazkiak dira udalak hirugarrenez antolatu duen lehiaketako protagonistak.

Parte hartzen dutenen artean 400 euroko lehenengo saria eta

400 eurokoa izango da lehenengo saria eta 250 eurokoa bigarrena

GEURE DURANGALDEA

Jose Julián Bakedano Zinegilea



## Alejo Carpentier

Idazle kubatarra (Lausanne 1904-Paris 1980) latinoamerikaren boom-ean parte hartu zuen nobelagile eta narratzaile zen. Kritikak XX. mendeko funtsezko idazletzat dauka gaztelaraz, eta estilo barrokoagatik da ezagun. Musikaria hezkuntzaz, surrealisten kide izan zen gaztetan.

Eta horrela kontatzen du Ramon Chaok egindako *Conversaciones con Alejo Carpentier* elkarrizketa liburuan. *Ecué-Yamba-O!*, *El reino de este mundo*, *Los pasos perdidos*, *El acoso*, *El siglo de las luces*, *El derecho de asilo*, *Concierto barroco*, *El recurso del método...* dira bere nobelarik ezagunenak. Castrista konbentzituria bera, Kubaren enbaxadore izan zen Parisen, eta *Tientos y diferencias* eta *El arpa y la sombra* lako saiakerak idatzi zituen.

2010ean argitaratu zen Habanan *Cartas a Toutouche* (Biblioteca Alejo Carpentier, Letras Cubanas editoriala), Paristik bere amari bidalitako gutunak batzen dituen. Zera irakurri dezakegu bertan:

"Espainiako mugan egon nintzen, Hendaian, Donibane Lohizunen, itsasoan igeri egin eta eguzkia hartuz, Ziburun, Baionan, eta Miarrizten... Ezin zenezakeen irudikatu euskal kostahonen edertasuna! Britainiak itsusitik duen guztia orekatzen da Espainiako mugan dagoen eskualde honekin, eta guztiek dakite espainolez hitz egiten. Luxua da! Estilo bat! Ohiz kanpoko da!..." eta geroago dio: "Miarrizten, Baionan, Donibane Lohizunen, kasinoetan, dancing handietan, hondartzetan, nasai sentitzen nintzen, pretentsiorik bako jende kosmopolita eta moderno artean. Bordelen ito egin nintzen".

LIBURUA > AURKEZPENA

# Lagunek inguratuta aurkeztuko du poema liburua Rodriguezek

Gaur, 18:00etan, Errota kultur etxeak hartuko du Mari Carmen Rodriguez abadiñarraren liburuaren aurkezpena

Abadiñoko Muntzaratzen bizi den Ourense jaiotako Mari Carmen Rodriguez "Rotsita"-ren olerkien bilduma da gaur, 18:00etatik aurrera, Errota kultur etxean aurkeztuko duten *A través de mis pensamientos* izeneko liburua.

Hainbat lagun artistek inguratuta egingo du Rodriguezek liburuaren aurkezpena.

**Musika eta antzerkiagaz**  
Besteak beste, hogeitaz olerkiren irakurtaldia burutuko du José Tizano poeta galiziarra gaurko ekitaldian; liburuan bildutako olerkien errezitaldi musikatu egingo du, Javier Obregonen ideian oinarrituta, Banarte antzerki taldeak; eta liburuaren azaleko marrazkiaren egilea den Valentín Urrutia margolari bilbotarraren pinturen erakusketa ere zalduko dute gaur.

Rodriguez olerkigile abadiñarrak bizi guztian zehar idatzitako ehun eta hamar olerkiren bilduma da Errota kultur etxean gaur aurkeztuko duten *A través de mis pensamientos* liburua.

Ekitaldiaren ondoren, Errota kultur etxean bertan ipiniko dute liburua salgai, eta Traña-Matienako liburutegian zein Durangon eta Bilbon ere salgai ipiniko du autoreak lana. Liburuaren 500 ale argitaratzeko gastua bere gain hartuta kaleratu du egi-leak bilduma. ■ I.E.

Hainbat lagun artistek inguratuta egin du Rodriguezek aurkezpena

Olerkigile abadiñarrak bere bizi guztian zehar idatzitako olerkiak dira

Egileak bere gain hartu du liburuaren 500 ale argitaratzeko kostua

ANTZERKIA > EMANALDIK

**M**inbizia diagnostikatu dioten alabaren eta bere aitaren istorioa kontatzen duen lana da asteburu honetan, taldearen herrian, Zornotzan, Markeliñe antzerki taldeak estreinatuko duen antzezlan. Urtarrilaren 20an gaztelarazko bertsioan eskainiko dute, 21:00etan; eta euskaraz urtarrilaren 21ean, 18:00etan, Zornotza Aretoan izango den emanaldian.

Familia guztiari zuzenduriko antzezlanek dagokienez, oso ohikoak ez diren gaiak buruzkoa da *Hareazko ipuinak*: heriotza eta minbiziaz, umoretik dihardu obrak.

Jon Kepa Zumalde aktoreak idatzirikoa da antzezlanaren testua, eta bera da antzezlaneko aktore bakarra ere. Txotxongiloak dira, bestalde, alabaren eta beste hainbat umeren paperean ikusiko ditugunak.

Txotxongiloak eta txelo doinuak uztartzen ditu, besteak beste, Markeliñeren antzezlan honek

Miren Larrea zornotzarra tarteko duen Anita Maravillas taldeko txotxongiloak eta Sandra F. Agirre eta Ines Martinez de Iturrateren txeloen musika barne hartzen ditu, beste beste, ikuskizunak.

Gaixotasuna dela-eta ospitalean egonaldi luzea igaro beharko du alabak, eta umea entretenituta mantentzeko aitak antzerkia, magia, zirkua, dantza eta imajinarioa zelan baliatzen dituen erakusten du Markeliñeren azkeneko lanak. Antzezlanaren aurkezpen orrian esaten denez, *Hareazko ipuinak* "ez da gaixotasun bati buruzko istorioa", aita eta alabaren artean sortzen den mundu horri buruzkoa baizik.

# Ausardiz eta errespetutik, minbiziari buruz sorturiko 'Hareazko ipuinak'

Zornotza Aretoan estreinatuko dute obra, gaztelarazko bertsioan gaur eta euskarazkoan urtarrilaren 21 ean



Drama bat osatzea barik, euren helburua antzezlanagaz "itxaropena, irribarrea eta baikortasuna" helaraztea izan dela adierazi dute Markeliñeko sortzaileek aurkezpenean: "Ausardiaz eta errespetuz jokatu nahi dugu", azpimarratu dute antzerki talde zornotzarreko kideek. "Bizitzeko desioa

"Itxaropena, irribarrea eta baikortasuna" gura izan dute Markeliñekoek helarazi

miretsi eta bizitzaren beste alde hori irudikatu", gura izan dute.

Besteak beste, otsailaren 3an Berrizko Kultur Etxean izango da Marijo de la Hoz-en zuzendaritza artistikoagaz eta Carles Pujol-en eszenografiagaz osatu duten *Hareazko ipuinak* ikusgai. ■ I.E.

## Gorakadak eta Marie Jongh-ek ere obrak estreinatu dituzte

Durangaldeko antzerkigileek 2011 urte amaieran eta 2012 urte hasiera honetan estreinatu dituzten antzezlanak ikusteko aukera izango dugu datozen asteetan eskualdeko hainbat aretotan.


Kultur Leioan aurkeztu zituzten abenduan Marie de Jongh eta Gorakada antzerki taldeek umeei zuzenduta sortu dituzten *Alabatxo* eta *Printzea eta ahatea* azkeneko antzezlanak.

Jokin Oregik zuzendurikoa da guraso izango den bikote bati buruz jarduteko 'clown' keinu antzerkia baliatzen duen *Alabatxo* obra. Martxoaren 18an Durangoko San Agustin kulturgunean eskainiko du Marie de Jongh taldeak obra, eta martxoan Berrizera joatekoak dira.

Martxoan Berrizko Kultur Etxean eskainiko du Gorakada talde abadiñarrak, bestalde, *Printzea eta ahatea* lana.

Javi Tiradok eta Jokin Oregik pentsatu eta sorturiko lana da *Printzea eta ahatea*, eta Tiradok eta Alex Diazek burutu dituzte zuzendaritza lanak.

"Kontatua izateko gaztelu bat, zuhaitz bat eta etxe bat baino behar ez dituen" istorio txiki honen protagonistak Reyes Molerres eta Susana Soletok dira, eta Fran Lasuenen musika eta Javi Tiradoren eszenografia darabilta. ■ I.E.



### PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



URTARRILAK 21 19:00etan  
**AIKO ERROMERIA**  
ERROMERIA. Sarrera doan.



URTARRILAK 26 20:00etan  
**KANTULAGUN**  
EUSKAL KANTAK ABESTEN  
Gonbidatua: Amaia Zubiria.  
Urte osoko izen ematea: 15euro.



OTSAILAK 4 17:30ean  
**TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON JUNIOR**  
HAURRENTZAKO PAILAZOAK  
Sarrera: 4euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**MA, TREN-TAUPADAK**  
La Enana Naranja

Urtarrilak 22 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

# OSASUN GIDA



## ODONTOLOGIA



**B. UNAMUNZAGA  
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea  
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51

## FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma  
48220 MATIENA-ABADINO

tf. 94 465 71 32  
mug. 686 906 374

## ODONTOLOGIA



**ZENTRU OPTIKOA**

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren  
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.  
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3  
48240 BERRIZ

tf. 94 622 50 99



**PABLO ZUBIZARRETA**

FISIOTERAPIA  
&  
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D  
48200 DURANGO

tf. 94 655 00 49 / 695 784 963

## PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia  
Oinaren kirurgia

**IMQ - SANITAS - ARESA**

Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO

tf: 94 620 11 00



**FISIOTERAPIA  
ETA ERREHABILIZAZIOA**

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari  
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,  
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.  
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

## COACHING

[elespejodelcoaching.es](http://elespejodelcoaching.es)

OIZ, 6 BEHEA DURANGO  
94 603 06 74 - 609 432 948



*Isabel Santiago*  
COACH

**Lagundu diezazuket  
zure osasuna hobetzen?**

**Bai... Nola?**

Zure **ohitura osasuntsuak** oztopatzen dituzten eta oharkabean pasatzen zaizkizun **pentsemenduak** eta **ustekak** ikusi egingo dituz nik, **entzunez**.

Ikusten ari naizena esango dizut eta zu **jakitun** zarenean, zer hobetu eta lortu gura duzun planteatu ahalko duzu, eta galderaren bitartez ongizatera heltzeko **helburua** eta **plana** zehaztuko duzu.

**Zure osasuna hobetu  
dezazun oztopo diren  
pentsemenduak, ohiturak,  
ustekak... baztertzen  
lagunduko dizut**

Bidali emaila:

[info@elespejodelcoaching.es](mailto:info@elespejodelcoaching.es)

**Zure zalantzak, galderak  
eta ezinegonak argituko ditut  
coaching-aren ikuspegitik**

## KIROMASAJEA



**KIROMASAJEA  
DIGITOPUNTURA**

Komentu kalea 15  
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52



**GOIATZ MURUA  
LETURIAGA**

PODOLOGOIA  
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio  
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea  
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



**HIRU  
FISIOTERAPIA**

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00  
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4  
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

## PSIKOLOGIA



**JON ARRUABARRENA**

PSIKOLOGO KLINIKOIA  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango  
[jon@psikologo.biz](mailto:jon@psikologo.biz) [www.psicologo.biz](http://www.psicologo.biz)

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

@anbotokirola

# KIROLAK >

## Belaunaldi berria ate joka dator

Mallabiko Txondor herri-kirol elkartean hainbat gazte dabilta aizkolari zein harri-jasotzaile izateko trebatzen



Mallabiko Goita auzoan entrenatzen dute; gune berezi bana atonduta dute aizkolarientzat eta harri-jasotzaileentzat.

### TXONDOR ELKARTEA

#### AIZKORAN:

- Jesus Gisasola (Mallabia, 48 urte)
- Javier Garitaonandia (Mallabia, 36 urte)
- Eñaut Gallastegi (Mallabia, 20 urte)
- Ioritz Gisasola (Mallabia, 14 urte)

#### HARRI-JASOTZEN

- Francisco Javier Balenciano (Ermua, 42 urte)
- Bernardo Ureta (Arantzazu, 38 urte)
- Urdax Magunazelaia (Abadiño, 14 urte)
- Jon Gisasola (Mallabia, 12 urte)
- Aritz Etxebarria (Ermua, 12 urte)

#### ASTO PROBAN

- Bixente Amezi (Mallabia, 62 urte)
- Asier Abendibar (Mallabia, 40 urte)

Kontaktua: [jgisasola@euskalnet.net](mailto:jgisasola@euskalnet.net)

**O**rain sei urte sortu zen Mallabiko Txondor herri kirol elkartea. Hainbat urtez aizkoran, harri-jasotzen eta asto probetan nor bere aldetik ibilitako kirolari batzuek indarrak pilatu zituzten, eta aurrera elkarrekin eta elkarri lagunduz egitea erabaki zuten. Harrezkero herri kirolak lau haizetara zabaltzeaz batera, berauen biziraupena bermatzeko lanean ere aritu dira; muga, zailtasun eta eragozpen guztiakin ere, lana bere fruituak ematen ari da, apurka-apurka.

Herri kirolen esparru zabalean, batez ere, aizkora, harri-jasotzea eta asto proben eremua batzen dira Txondorren. Guztira, 11 lagun dabilta elkartearen inguruan, eta hainbat gaztetxo tartean. Aizkoran Ioritz Gisasola (14 urte) eta Eñaut Gallastegi (20 urte) ari dira, eta harri jasotzen Urdax Magunazelaia (14 urte), Jon Gisasola (12 urte) eta Aritz Etxebarria (12 urte). Gazteen gogoia eta ilusioa bideratzeko lanean esperientzia handiko kirolariak ari dira; Jesus

Gisasola tartean: Zelai II.a. Helduen esperientzia eta gaztetxo- en ikasteko gogoia batzea ez da koktel txarra.

Txondorreko kide gehienak mallabitarrak diren arren, atea zabalik dute inguruko herrietara ere; Urdax Magunazelaia abadiñar gazte ezagunak, esaterako, eurekin entrenatzen du.

Hiru modutan gizarteratzen dira herri-kirolak: txapelketetan, erakustaldietan eta apustuetan. Aizkoran txapelketak gero eta gorpuztuago daude, eta telebis-

taren bultzadak ere lagundu du berpizkunde horretan: "Gazte asko dabilta aizkoran, eta frotoietara jende asko hurreratzen da. Aspaldiko indartsuen dago aizkolaritza", dio Jesus Gisasolak. Erakustaldiei dagokienez, Euskal Herri osoan ibiltzen dira eta gazteak erreklamu erakargarria dira: "Zaleei gustatu egiten zaie gazteak aizkoran zein harrijasotzen ikustea".

Gazteak herri-kirolen mundura erakartzea ez da erraza; hasten direnetako "erdiak baino

gehiago herri-kirolei lotutako familietako semeak edo alabak" ei dira: "Familiako lotura hori ez dutenei kosta egiten zaie pausoa ematea". Arlo horretan badago zeregina, beste arlo batzuetan ere badagoen moduan. Izan ere, "ez da normala", Gisasolaren iritziz, erakustaldietan profesionalak "morroien moduan" prestaketa lanetan ibiltzea: "Mozketan hasi aurretik hartzen dugu lehenengo nekealdia". Kirolaria erakustaldira bakarrik mugatuko den eguna helduko dela uste du, baina zaila da aurreikusten noiz eta nola: "Dirua irabaziko balitz, egiturak


### Harri-jasotze saioak aizkora proben itzalean oraingoz



Normalean harri-jasotze saioak aizkora txanda biren artean garatzen dira. Beraz, aizkolariek nora, harri-jasotzaileak hara joaten dira. Ikuskizun propio legez funtzionatzeko duen arazo nagusia iraupena da: "Aizkoran 20 edo 30 minutuko saioak antolatu daitezken bitartean, harri-jasotzen saioek askoz laburragoak izan behar dute. Ikuskizun handia eskaintzen dute, baina denbora laburrean", Gisasolaren arabera. "Egin dira harri-jasotze saioak bakarrik antolatze-ko saioak, baina oraingoz ez dira errentagarriak".

Harri-jasotzea baloratzeko orduan ikuspuntu komertziala barik berez duen balioa hartzen badugu, inork ezin dezake zalantzan ipini ikuskizun bikainak izaten direla. Urdax Magunazelaia gaztearen adibidea hortxe dago. Otxandion bizi den abadiñar gaztearen jardunak ahozabalik uzten ditu ikusleak.

### "Bizkaiko txapelketan inoizko parte-hartze handiena egon da"



Joan zen urte amaieran Bizkaiko Aizkolaritza Txapelketa jokatu zuten. Lehenengo kanporaketan 13 aizkolarik parte hartu zuten, finalerako sei plazen bila: "Sekula ez dut Bizkaiko txapelketan hainbeste parte-hartzaile ezagutu", dio Gisasolak. Gainera, gaztetetasuna izan da txapelketaren beste ezaugarrietako bat. Txapela bosgarren urtez segidan berritu duen Aitzol Atutxak 23 urte ditu; bigarren geratu den Aritz Irazabalek 20. "Bizkaiarentzat hori albiste itzela da".

"Hainbeste gazte ikusteak poztu egiten nau. Mugimendua, bizia nabari zaio aizkolaritzari". Jakina, ardura ere eragiten dio Gisasolari: finalera sailkatzeko kapaz izango ote den, maila emango duen... "Durangaldeari begira okerrena da gehienak Arratia, Barakaldo eta hortikoak direla; ea apurka hemendik ere gehiago ateratzen ditugun".

12 eta 14 urteko hainbat aizkolaria eta harri-jasotzaile dituzte

sendotzen saiatuko ginatke, baina gaur egun ez du ematen. Aizkoran gastu handiak daude, egurra dela, aizkora dela, prestaketa... zaila da", aitortu du.

#### Asto probak eta jokoak

Mallabiko pilotalekua eraberritu zutenean asto proben erakusle- leiho paregabea ikusi zuten Bixente Ameztik eta Asier Abendibarrek, eta harrezkero asto proben tradizioa lantzen dihardute. Bestalde, Francisco Javier Balenciano harrijasoketan ez ezik, Iparraldeko jokoetan ere saiatzen da: gurdi eta lasto jasoketa, ingudea... ■ J. Derteano

# Sarralde anaiekin, igoera lortu gura du Abadiñok

Larrasoloetatik Abadiñora joan dira; lehenengoek joandakoen hutsunea sumatuko dute eta bigarreni igotzeko ilusioa piztu zaie



Zaldi Baltzak garaipen garrantzitsua lortu zuen lehen jardunaldian ez jaisteko borrokan. Zaldi Baltza

Orain urte bi Abadiño xake taldeak uko egin zion euskal ligan jokatzeari, eta eurek hala nahita jaitsi ziren goren mailara. "Nekatuta geunden hainbeste joan-etorri hain urrunera egiten", gogoratu du Ibon Martin xake-lariak. Iaz igotzeko batere asmorik barik ibili ziren, dibertsioz, eta bigarren amaitu zuten. Maila berean zebilen Larrasoloeta xake taldea, ordea, jaitsi egin zen, eta hango xakelari batzuek Abadiñorako bidea hartu dute aurten; Rodrigo eta Diego Sarralde anaiek, esaterako. Orain, taldea indartu eta handituta ilusioa berpiztu zaio Abadiñori, eta igoera dute buruan.

Anai biek edozein talde indartuko lukete; esaterako, 2010ean Euskadiko txapeldu-norde izatea lortu zuen Rodrigok.

## Zaldi Baltzak ondo hasi du gorena, Zuri Baltza 3-1 menderatuz

Eurekin batera, Alain Prietok eta oraintsu Bizkaiko txapelketa irabazi duen leray Galtzagorrik osatzen dute talde nagusia, eta lehen jardunaldian bina berdindu zuten Santurtziren kontra.

Durangoko Larrasoloetak mailari eustea izango du helburu. Normala den moduan, Sarralde anaiekin hutsunea nabaritu du dutela diote, baina ez daude amore emateko, nahiz eta lehen jardunaldian erraz galdu zuten Getxoren aurka (0,5-3,5). Jesus Unzueta, Sabino Arauzo, Iñaki

Lombraña eta Felipe Iglesias dira xakelari titularrak. Dena dela, aurtengo pozik handienak bigarren taldetik etorri daitezke. Gazte mailetatik igota, hantxe dabilta 14 urteko Enrique Garcia eta 11 urteko Alberto Garcia anaia, eta lehen jardunaldian B taldeak ezustekoa eman zuen Zornotza 3-1 menderatuta.

Elorrioko Zaldi Baltzak Abadiñoren maila berean dihardu, iaz igotzea lortu baitzuten: "Zer talde dabilta ikusita, mailari eusteko fin ibili beharko dugu", aitortu du Aitor Arabiotorrek. Esan eta egin; lehen jardunaldian 3-1 menderatu zuten Zuri Baltza arerio zuzena. Talde nagusia Iñigo Axpe, Aitor Gallastegi, Alberto Sardón eta Jon Regillagak osatzen dute. ■ J.D.

## Olinpiar Jokoak buruan, pedalei eragiten berriz

Eneritz Iturriagak denboraldiari ekin dio



Londresko Jokoek lehentasuna izango dute udaberrian.

Eneritz Iturriagak bigarren urtea hasiko du Lointek taldean. Aurtengo helburuak eta nobedadeak jakinarazteko prentsaurrekoan abadiñarrak aitortu zuenez, "denboraldi arraroa" izango da aurtengoa, "hasiera-hasieratik" Olinpiar Jokoetarako sailkapenera bideratu beharko dituztelako indarrak: "Ez dakigu plaza bat lortuko dugun edo bigarrena lortzeko moduan ibili ahal izango dugun ere".

Ondorioz, urteko lehenengo hileak "erabakigarriak izango dira, eta Olinpiar Jokoetan egon gaitzkeela erakutsi beharko dugu". Plaza lortuz gero, "lehen-tasuna" izango duela aitortzen du, baina Emakumeen Bira eta Munduko Txapelketa ahaztu barik "betidanik gustatu izan zaizkidan lasterketak direlako". Bestalde, Lointek taldeak sei fitxaketa egin ditu aurtun. ■ J.D.

Ruben Perez  
•Euskaltel-Euskadiko txirrindularia



## Australian 40 gradugaz

Munduko beste puntan hasi dugu 2012 denboraldia: Australian. Negutik udarako saltoa eman dugu, eta 40 gradutara arteko temperaturekin gabiltza. Beraz, ordu aldaketara (+9.30 ordu) ez ezik, klimara ere moldatu behar dugu gorputza.

Down Under tourra egutegiko lehenengoa da, sei egun irauten du eta etapa bi mendatean amaitzen dira; mendikoak etapa laburrak dira, luzeenak 150 kilometro dituela. Hiru lasterketa lehiatu ditugu dagoeneko. Bi etapa gogor horiek kenduta, besteak nahiko lauak dira, sprintean espezialistak direnentzat aproposak. Ikuskizuna eskainiko dute munduko onenak etorri direlako; Cavendish bakarrik falta dela uste dut.

Barikuan helmugarako 20 kilometroren faltan hiru kilometroko mendate bat dugu, %8ra arteko maldekin, eta bezperan, lerrook idazten ari naizenean, badut etapa txukuna egiteko itxaropena. Egun horretan neure burua ondo aurkitzea eta mendatea pelotai-buruagaz gaintzea gura nuke. Uste dut helmugara, gehienez, 50 txirrindulariko taldea helduko dela, eta etapa lehiatzeko aukera ona izan daiteke.

Tourra amaitzen denean, etxera eta negu girora itzuliko gara. Lehenengo zazpi orduko hegaldia izango dugu Kuala Lumpur-era; handik beste 11 ordu Parisera eta, azkenik, beste ordu eta erdi Bilbon lurra hartu aurretik. Ondoren, 10 eguneko atsedena hartuko dut, eta jarraian berriz lehiara, Mallorkako criteriumean parte hartzeko asmoa baitut.

Adituarentxokoa

## Elezkano anaiekin aurka lehiatuko dira iurretarrak

'Berria' txapelketako final zortzirenetan daude

Berria pilota txapelketan Durangaldeak iurretako Olaburu kluba du ordezkari bakarra. Lehenengo kanporaketan Alegiako Intxaurre kanporatu dute eta final zortzirenetan Galdakao izango dute arerio. Kontrario beldurgarria da Elezkano anaiekin bertan jokatzeko dutela kontuan hartuz gero.

Kadeteetako lehia irabaztea da gakoa. Gazteetan lan zailak izango dituzte, tartean Elezkano II.a dela. Nagusietan jokatzeko Lezamako Aurtentxe-Bilbao bikotea fitxatu du Olaburuk; txapelketak fitxaketa bi ahalbidetzen ditu. Kanporaketa otsailaren 10ean jokatu dute Galdakaon. ■ J.D.

## Atxondo eta Zaldibar protagonista pilotan

Durangaldeko Pilota Txapelketan hiruna mailetako finaletara heldu dira herri biak

Barikuan eta zapatuan Durangaldeko XXVIII. Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte Zaldibarren. Sei mailetatik bostetan Atxondo edo Zaldibar heldu dira finalera; gaztetxoetan biak elkarren kontra ariko dira.

Barikuan eta zapatuan jokatu dituzte finalak Zaldibarko frontoian

Barikuan, 19:00etan, maila nagusietako irabazleak ebatziko dituzte. Kadeteetan eta gazteetan Zaldibarrek Lea Ibarra eta Abadiño izango ditu arerio. Nagusietan Durango eta Lea Ibarra lehiatuko dira txapelaren bila.

Gaztetxoetan finalak zapatuan 17:30ean hasiko dira. Benjaminetan Atxondok Elorrio izango du arerio; kimuetan Lea Ibarren kontra jokatu dute, eta haurren mailan Zaldibarren aurka. ■ J.D.



# Lehenengo itzulia amaitzeko, liderren arteko derbia zapatuan

Ezkurdik eta lurretako Bk hirugarren erregionaleko lehenengo postua izango dute jokoan



Joan zen asteburuan 2-3 irabazi zuen Ezkurdik Berrizen kontrako derbian. Kepa Aginako

**H**irugarren erregionalean asteburuan amaituko da lehenengo itzulia. Neguko txapelduna zer talde den Arripausuetan erabakiko da bihar, Ezkurdik eta lurretako B, sailkapeneko liderra eta bigarrena, hurre-

nez hurren, derbian lehiatuko baitira, 18:00etatik aurrera.

Bolada ezinhobean dabilta talde bata zein bestea; biek bosna garaipen daramatzate segidan. Bihar amaituko da bietako baten edo bien bolada hori.

Hirugarren erregionalean talde bati gertatu dakiokkeen gauzarik txarrena denboraldi erdian igoeratik urrun egotea da. Jaitsierarik ez dagoenez, gaitza da motibazioari eustea. Horregatik, Iñigo Larrañagak

Ezkurdiren gidaritza hartu zuen —hauxe du lehenengo denboraldia—, argi zuen ez zetorrela denborapasa: “Lehiakorra naiz, eta hasieratik esan nien igoera izango genuela helburu. Azkeneko urteetan taula erdian ibili dira eta txipa aldatzeko ahalginak egin ditut. Alderdi psikologikoa asko landu dut”. Ondorioak begibistakoak dira.

Biharko derbirako baja garrantzitsuak dituzte. Joan zen astean Berriz Bren kontra jokatutako derbian, Asier Bilbao zentrala eta Iñigo Bustintza erdilaria egotzi zizkien epaileak, eta ezingo dute asteburuan jokatu.

**Iurretako, partidaren bila** lurretako B sorpresa atsegina ematen ari da. Gazte mailako jokalarik asko dituzte, eta Abadiño edo Extremeño taldetik etortitakoak ere badaude. Denbora gutxian talde sendoa eta konprometitua bihurtu dira, eta “ilusioz beteta gaude”, Karmelo Alonso entrenatzaileak aitortu duenez. Derbian partidaren bila irtengo dira: “Irabazi zein galdu, gu beti legez erasora irtengo gara, espekulatu barik”, dio.

Iurretako B aurten sortu den taldea da, baina Alonsok denbora gehiago darama klubari lotuta. Iaz gazteen taldea zuzendu zuen eta igoeraren atarian geratu ziren. ■ J.Derteano

## Bolada onagaz jarraitu gura dute Barakaldon

Durango Kulturalak indarberriturik eta bolada onean bisitatuko du asteburuan Lasasarre, Barakaldo hirugarren sailkatuaren zelaia. Mikel Agirregomez-kortaren gizonen bost jardunaldi daramatzate galdu barik, eta azkeneko bietan garaipena lortu dute. Azpimarratzekoa da joan zen asteburuan Tabiran Laudioen kontra lortutako garaipena

**Kulturalak azken lehiak irabazi ditu, Audio eta Alaves Bren aurka**

(1-0). Egia da denboraldi hasieran igotzeko faborito nagusietakoa zen Audio ez dela esperotako mailarik ematen ari, baina hala ere seigarren dago; maila handiko jokalariek dituzte. Beraz, garaipen handia lortu zuen Kulturalak. Orain zortzigarren daude, eta bost puntura dute play-off postua.

Barakaldo ere sasoiaren dago, azken hiru partidak segidan irabazi dituzte-eta; azkena, Eibarren etxean: 0-2. ■ J.D.

## Hernández irabazle Berrizko ziklo-kros proban

Joan zen asteburuan jokatutako Berrizko Ziklo-kros Sari Nagusia Orbea taldeko Aitor Hernández ermuarrak irabazi zuen. Lokatz askorik bako zirku teknikoan, lasterketa amaitzeko itzuli biren faltan, Hernándezek atzean utzi zituen Ruben Ruzafa eta Jose Antonio Díez, eta handik aurrera bakarrik egin zuen helmugarainoko bidea. Horrela, denboraldiko bosgarren garaipena lortu zuen ermuarrak.

23 urtez azpiko lasterketa Iñigo Gómezek irabazi zuen; gazteetan Eneko Corralesek irabazi zuen, erakustaldia eskainiz, eta kadeteetan Patxi Aldanondo nagusitu zen.

Emakumeetan, berriz, Naia Alzolak irabazi zuen nagusietan, Eider Merinok gazteetan eta Yaiza Agirrek kadeteetan. ■ J.D.

**Denboraldiko bosgarren garaipena lortu du ermuarrak**

## Hile biko geldialdia eta gero berriro ekingo diote ligari

**Durango Ilarduyako emakumeen taldeak Araba Gaztedi hartuko du Arripausuetan**

Urrian jardunaldi bi jokatu ostean, hile biko geldialdia egin du emakumeen euskal ligak errugbian. Asteburuan itzuliko dira lehiara, eta Durango Ilarduyak Araba Gaztedi hartuko du etxean zapatuan 16:30ean.

Gaztedik ez zuen punturik batu lehenengo partida bietan; Durango Ilarduya, berriz, hirugarren dago zazpi puntugaz.

Liga amaitzeko falta diren bost lehiak apirila bitartean jokatuko dituzte: bana urtarril, otsail eta apirilean, eta bi martxoan.

Bestalde, gizonen talde nagusiak galdu egin zuen Santanderren aurka (23-25). Hecesak, aldiz, 40-12 menderatu zuen Bartzelona. Ondorioz, azken tokira jaitzi da berriro Durango Ilarduya. ■ J.D.



Gaztedi azken sailkatua hartuko dute etxean emakumeek.

## Agenda

### MOTORRA

#### BATZAR INFORMATIBOA

#### Durangalde Racing

#### Elkartek delituta:

Barikuan, 19:00etan, Pinondon. Euskadiko Automobilismo Federazioko presidentea etorriko da, dudak argitzeko.

### FUTBOLA

#### GOREN MAILA

#### Iurretako - Aranguren

Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

#### Berriz - Larramendi

Domekan, 11:30ean, Berrizburun

#### BIGARREN ERREGIONALA

#### Abadiño - Solokoetxe

Zapatuan, 16:00etan, Astolan

#### HIRUGARREN ERREGIONALA

#### Zaldia B - Txurdinaga

Domekan, 11:30ean, Solobarrian

#### Extremeño -

#### San Ignacio

Zapatuan, 16:30ean, Tabiran

#### Ezkurdik - Iurretako B

Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan

### ARETO FUTBOLA

#### GOREN MAILA

#### Mallabia Hierros Serv.-Sestao

Domekan, 17:45ean, Zaldibarko kiroldegian

#### Sasikoa - Ibarra

Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

#### EUSKAL LIGA

#### Kurutzlaga Ikastola -

#### Tolosala

Zapatuan, 16:30ean, Landako kiroldegian

#### GOREN MAILA

#### Abadiñoako Lagun - Zorrotzako

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun

#### LEHENENGO ERREGIONALA

#### Dantxari - Hegalarik

Zapatuan, 17:00etan, Lanbide Heziketako Institutuan

#### Elorrioko B -

#### Sumi Muguru

Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian

#### Sapuberri -

#### Iturriondo

Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian

### SASKIBALOA

#### LEHENENGO MAILA

#### (emakumeak)

#### Tabirako - Bera Bera

Zapatuan, 20:00etan, Landako kiroldegian

#### LEHEN ERREGIONALA

#### (emakumeak)

#### Tabirako - Mungia

Zapatuan, 16:45ean, Landako kiroldegian

### ERRUGBIA

#### EUSKAL LIGA

#### Elorrio Parra Taberna-Arratiko

Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko errugbi zelaian

### XAKEA

#### BIZKAIKO LIGA

#### Zaldi Baltza B -

#### Conteneo B

Zapatuan, 16:00etan, Elorrioko Kirol Etxean

#### Larrasoloeta -

#### Jokin Erdozia

Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

# EDERTASUN GIDA

## ESTETIKA ZENTROAK

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

**Ana Camarero**  
• estetika zentroa •

**LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO ESTETIKOA**

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

**Nerea** Masaje eta Estetika Zentroa

**Nerea Mallabiabarrena • Merche Garcia**  
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAKO masaje indiarrek antiestres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

**synthesis**

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango

## Krema hidratatzaileak

Edozelako azalek, baina batez ere lehorrek, krema edo kosmetiko-geruza hidratatzaile baten beharra izaten dute, galdutako ur, mineral eta bitaminak errekuiperatzen laguntzeko. Galera hori, eguzkia, eguraldi lehorra eta izerdiagatik sortzen da, esate baterako.

Krema edo geruza hori etxean egin gura badugu, erabiliko ditugun osagaiak zeintzuk izango diren ondo aztertu behar dugu. Ahuakatea edo oliba eta almendra olioak izan daitezke adibide egokiak.

Bestalde, azalaren ezaugarriak ere kontuan hartu beharrekoak dira. Azal koipetsua badaukagu, komenigarriena krema urtsua ematea da. Azala lehorra bada, ostera, krema koipetsua litzateke egokiena.

### Azal normalerako errezeta

Baso laurden yogurt, hiru alga-orri eta ezti koilarakada bategaz krema egokia sortu dezakegu azal normala dutenentzat. Algak moztu eta beste bi osagaiekin nahastuko ditugu, Maria bainuan berotuz. Kotoiagaz ezarriko dugu aurpegian, eta gau osoan kendu barik edukiko dugu.

### Azal koipetsurako errezeta

Aloe vera, pepinoa eta yogurtagaz (1/4) osatuko dugu. Aloe veraren mamia atera, pepinoa txikitu, eta guztia irabiagailuan sartuko dugu. Hurrengo goizean kenduko dugu aurpegitik.

### Azal lehorrerako errezeta

Yogurta (1/4), ezti beroko koilarakada bat, mahonesa koilarakada bi eta gorringo bigaz egingo dugu. Guztia nahastuko dugu sendotu arte, eta hozkailuan gordeko dugu ezarri aurretik.



## ILEAPAINDEGIAK

**iunik** ileapaindegia

astelehenerik  
asteazkenera  
10:00-21:00

osteguna  
eta ostirala  
09:00-22:00

larunbata  
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

**NUKLEO**  
ileapaindegia

[myspace.com/pelukerianukleo](http://myspace.com/pelukerianukleo)

Nizeto Urkizu, 14 behe • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

# Gremioen gida

## ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta



**PUJANA**  
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

## ITURGINTZA

**berriozabaleta**  
Iturgintza • Berokuntza  
gremioen koordinaketa  
jose miguel acedo  
mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55  
berriozabaleta@yahoo.es  
48230 Elorrio (Bizkaia)

## ELEKTRONIKA

**URBASA** ELEKTRONIKA TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango  
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80  
urbasa@urbasatel.com  
www.urbasatel.com



**Panasonic**

## ARGIZTATZE TEKNIKAK MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxa: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com



Solaguren kalea 3 • ABADINO  
Tel.: 94 681 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
urtiaga@terra.es

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

## GARBIKETAK

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goietza, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

## DEKORAZIOA

**Jaio barnizatuak**



- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guzietako zaharberriak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz  
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21  
Fax: 94 682 48 95 - info@jaioarnizatuak.com

**Mallabiena**  
M.Z.O.ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com



**Ubide**  
iturgintza  
Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net

## LORAZAINTZA

*Jardines Patxi Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

## AROTZERIA

**EGUIA** s.l.  
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •  
Tel.: 94 681 77 46  
Faxa: 94 605 69 06  
**Mug.: 669 655 169**  
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

**sagasta**  
ITURGINTZA  
Iñaki Urien Madrazo  
Industria Azpiegiturak  
GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA  
Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria  
48220 Abadiño (Bizkaia)  
Mug.: 628 59 98 24





# AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urtarrilaren 26an, Durangon

## KANTULAGUN

Urtarrilaren 26an Plateruenean da kantulagunen hitzordua. Josu Zabala musikari otzandiarra eta Batbihirulau taldea gonbidatu dituzte emanaldira, eta eurek gidatuta jardungo dute Platerueneko ekimenean parte hartzen duten kantuzaleek. Urtean zehar beste hainbat zita izango ditu Kantulagun-ek, eta Plateruenean bertan eman ahalko da urte osorako izena.

### ANTZERKIA

#### BERRIZ

>> Urtarrilaren 20an, Karlik Danza Teatro taldearen **Princesas olvidadas o desconocidas** obra, Kultur Etxean.

#### DURANGO

>> Urtarrilaren 22an, La Enana Naranja taldearen **Ma, tren taupadak** obra, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

#### ELORRIO

>> Urtarrilaren 27an, Histrión Teatro taldearen **Traición** obra, 22:00etan, Arriolan.

#### ZORNOTZA

>> Urtarrilaren 20an, Markeliñe taldearen **Cuentos de arena**, 21:00etan, Zornotza Aretoan.

>> Urtarrilaren 21ean, Markeliñe taldearen **Harezko ipuinak**, 18:00etan, Zornotza Aretoan.

### BERBALDIA

#### BERRIZ

>> Urtarrilaren 26an, **Elikadura subirautza... zer da hori?**, 19:30etan, Kultur Etxean.

### BERTSOAK

#### ABADIÑO

>> Urtarrilaren 27an, **Aitor Sarriegi** eta **Beñat Gaztelumendigaz** bertso afaria, eta Koipelustre koplak jarri sariketako sari-ematea, 21:00etan, Gaztetxean.

### ERAKUSKETA

#### DURANGO

>> Urtarrilaren 29ra arte, **Alberto Palomera** margolariaren erakusketa, Arte eta Historia Museoa.

#### ELORRIO

>> Urtarrilaren 13tik otsailaren 1era arte, Asier Sanz margolariaren **Bilbo, labirinto magikoa** erakusketa, Elorrioko Iturri Kultur Etxean.

### JAIK

#### IURRETA (Bakixa)

>> Urtarrilaren 20an, (San Sebastian Deunaren eguna). **Meza Santua**, 11:30etan. **Ander eta Egoi trikitalariek** girotuko dute goiza, eta **igel txapelketa** izango da arratsaldean.

>> Urtarrilaren 21ean, **asto probak**, 18:00etan eta **Luhartz** taldeagaz erromeria, 22:30etan.

>> Urtarrilaren 22an, **Meza**, 11:30etan. **Mikel Deuna** taldearen emanaldia eta **bertsolariak**.

### KONTALARIA

#### DURANGO

>> Urtarrilaren 20an, **Ines Bengoa**ren **Vamos a contar mentiras, tralará**, 20:00etan, Bibliotekan.

#### IURRETA

>> Urtarrilaren 27an, **Maite Arreseren** ipuin kontalaritza saioa, (3 eta 4 urtekoentzako 17:30etan; eta 18:00etan, 5 urtetik gorakoentzat) Bibliotekan.

>> Urtarrilaren 27an, Alicanteko **Pablo Albo** ipuin kontolariaren saioa, 20:00etan, Bibliotekan.

### LEHIAKETA

#### IURRETA

>> Urtarrilaren 29 arte, Bibliotekan aurkeztu daitezke **Iurretako IX. literatur Lehiaketarako** lanak.

### MUSIKA

#### ABADIÑO

>> Urtarrilaren 20an, **Koktel Cuarters** jazz taldea, 20:00etan, Xirimiri tabernan.

#### BERRIZ

>> Urtarrilaren 21ean, Iñaki Etxezarraga **"Etxe"**, 20:00etan, Kultur Etxean.

#### DURANGO

>> Urtarrilaren 26an, **Kantulagun**, 20:00etan, Plateruenean.

#### ELORRIO

>> Urtarrilaren 21ean, **Xabier Montoia**, diskoa aurkezten, 22:30etan, Arriolan.

>> Urtarrilaren 21ean, **Todo en Do** eta **Devicio** taldeak, 22:30etan, Gaztetxean.

### TAILERRA

#### ABADIÑO

>> Urtarrilaren 27an, hiru urtetik gorako umeentzako **arte tailerra**,

18:00etan, Muntzaratzkeo Xirimiri tabernan.

### ZINEFORUMA

#### BERRIZ

>> Urtarrilaren 22an, **Un dios salvaje** filmaren emanaldia, 19:00etan, Kultur Etxean.

### ZINEMA

#### DURANGO

Zugara

#### La chispa de la vida

Zuzendaria: *Álex de la Iglesia*  
barikua 20: 19:00/22:00  
zapateria 21: 19:30/22:30  
domeka 22: 19:30/22:30  
astelehena 23: 19:00/22:00  
martitzena 24: 20:00

Umeen zinema

#### El cascanueces 3D

Zuzendaria: *Andrey Konchalovskiy*  
zapateria 21: 17:00  
domeka 22: 17:00

Zineforuma

#### Un dios salvaje

Zuzendaria: *Roman Polanski*  
eguna 26: 20:30

#### ELORRIO

Arriola

#### Jane Eyre

Zuzendaria: *Cary Joji Fukunaga*  
domeka 22: 20:00  
astelehena 23: 20:00

#### ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

#### La fuente de las mujeres

Zuzendaria: *Radu Mihaileanu*  
domeka 22: 20:00  
astelehena 23: 20:00

Umeentzako zinea

#### La gran aventura de Winter el delfín

Zuzendaria: *C. Martin Smith*  
domeka 22: 17:30



Urtarrilaren 22an, Durangoko San Agustinen

## 'MA, TREN TAUPADAK'

Sei urtetik gorako ikusleei zuzendurikoa da La Enana Naranja antzerki taldearen **Ma, tren taupadak** antzezlan. Bere lanpostua eta etxea galdu ondoren, tren ez ingo duen bidaia bati ekiten dio protagonistak. Bagoi herdoildu eta pertsonaia bizirauleen inguruko abentura da obran kontatzen dena, ama eta nekazari bati buruzkoa.

## urtarrileko agenda



**Urtarrilak 21,22,28,29** • Iurreta Txirindulari Elkarte  
10:00 Hainbat ibilbide (65-72 km)

**Urtarrilak 21,22** • Bakixako Jai Batzordea  
21ean, 18:00 Asto probak  
22:30 erromeria Luhartz taldearekin  
22an, 11:30 Meza. Jarraian Iurretako Mikel Deuna dantza taldea  
13:00 Bertsolariak

**Urtarrilak 24,25,27,31** • Herr Biblioteka  
24an, 18:30 Irakurleen txokoa. "Nada" Jeanne Teller  
25ean, 19:00 Irakurleen txokoa. "Jaiotze markak" Nancy Huston  
27an, 17:30 (3-4 urte bitartekoak) / 18:00 (5 urtetik gorakoak)  
Ipuin kontalaria: Maite Arrese  
20:00 Helduentzako ipuin kontalaria. Pablo Albo  
IX. Literatur lehiaketa: lanak urtarrilaren 27a arte aurkeztu ahal izango dira Iurretako Herri Bibliotekan  
31n, 17:00-17:45 (8-10 urte) Haurren irakurketa kluba  
18:00-18:45 (11-12 urte) Helduen irakurketa kluba

**Urtarrilak 25** • KZgunea  
18:00-20:00 IT txartela, Ibarretxe kultur etxean

**Urtarrilak 31** • Goiuria kultur gunean  
20:00 Santa Ageda koplak entsegua

DENBORAPASAK

4		5	8	9	3
					4
7		3	4		1
	3	4		8	
8		9		5	1 6 3
	6	3	8		4 7 2
9				3	8
8	6	1	7	4	2 3
			9	6	7 2 1

ZORION AGURRAK

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 17:00ak arteko epea



Sudurrean gorri, bihotzean irri, **Maddi** ta **Garazi** maitagarri! Zorionak eta pottak gure etxeko bi perle!



Zorionak **Sara** eta izeko! 21ean ospatuko dugu zuen urtebetetzea Formigalen! Paregabea izango da!



Pasa den urtarrilaren 12an, gure printzesita **Leirek** 5 urte egin zituen, eta datorren 23an bere lehengusu **Gorkak** ere urteak betekotu ditu. Zorionak etxeko guztien partez, eta horrela jarraitu!



Gure etxean urte hasiera berezia da, 1ean aitaxok eta **Intzak** urteak bete dituzte. 3 urte gure neska handiak! Eta hilaren 10ean **Irati** etorri zitzaigun! Musu asko hiruroi, amaxoren partez!

	Zuhaikak mota	Mortu, basamortu Erabiltzen ari da	Birrintu, desegin
	*IZENA		
	Hori argi Baldintzetan		
	* DEITURA	Zorrien arrautza Pl., etxeko gela bat	
Hedatu			
Hausnarkari mota		Trebe, iaio	
Fisikaren atala		Aitortzaile	
... gabe, atertu gabe		Sobera	
Hizki grekoa		Gizon izena	
		Titanioa	
		Tu eginez	
Euria egiteari utzi	Neurrira ekarria Txistu, tu, listu		
		Potasioa	
		Idi, hitz elkarketan	
Xalotasunez			Uranioa
Hautatu			



Joan den urtarrilaren 10ean **Aimarrek** eta 16an **Ainhoa** urte asko bete dabez. Etxeko danon partez zorionak eta musu handi bat!



**Oinatz Eguiak** urtetxo bat betetzen du gaur, urtarrilak 20. Zorionak eta musu potolo potolo bat etxeko guztion partez!



Argazkiko bidaiazale hau **Miren Otxotorena** da. 14 urte bete berri dituen honetan musu handi bat, familiaren partez. Zorionak guapa eta segi beti bezain maitagarri!



Aurten bien artean ia-ia 100 urte beteko dabezelako, zorionak eta musu handi bat **Izaro** eta birramama **Maria Pilar**!



Zorionak **Izar**! 15 egunero zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizu. Txartela gura duzunean jaso dezakezu, lurretako Bixente Kapanaga 9an.

BOTIKAK

- Barikua, 20**  
09:00-09:00  
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)  
09:00-22:00  
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)  
**Zapatua, 21**  
09:00-09:00  
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)  
09:00-13:30  
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)  
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)  
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)  
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)  
**Domeka, 22**  
09:00-09:00  
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)  
09:00-22:00  
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)  
**Astelehena, 23**  
09:00-09:00  
• Navarro (Arteka, 6, Durango)  
**Martitzena, 24**  
09:00-09:00  
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)  
**Eguaztena, 25**  
09:00-09:00  
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)  
09:00-22:00  
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)  
**Eguena, 26**  
09:00-09:00  
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak**.....112  
**DYA** .....94 620 28 00  
**Gurutz Gorria** ....94 681 09 49  
**Osakidetza** .....94 600 72 00  
**Ertzaintza** .....94 466 93 00  
**Suhiltzaileak** .....112
- GARRIAOK**
- Euskotren .....902 54 32 10  
Bizkaibus .....94 448 40 80  
Pesa .....902 10 12 10  
Continental Auto ....945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño .....946 814 470  
Matiena .....606 459 988  
Durango Geltokia ....946 811 001  
Elorrio Geltokia ....946 820 040  
J.L. Uriarte .....670 402 002  
I. Estebez .....670 678 273  
M Galeano .....670 409 330  
Iurreta .....946 201 565  
Taxi auzunea .....688 618 690
- UDALAK**
- Abadiño .....94 621 55 30  
Atxondo .....94 682 10 09  
Berriz .....94 682 45 84  
Durango .....94 603 00 00
- Elorrio .....94 658 27 12  
Garai .....94 681 63 93  
Iurreta .....94 620 12 00  
Izurtza .....94 681 35 48  
Mallabia .....943 17 14 61  
Mañaria .....94 681 89 98  
Otxandio .....945 45 00 20  
Zaldibar .....94 682 70 16
- UDALTZAINGOA**
- Abadiño .....94 621 55 33  
Berriz .....94 682 40 36  
Durango .....94 603 00 10  
Elorrio .....94 682 02 18  
Iurreta .....94 620 08 88
- EGURALDIA**
- 9 **12º** BARIKUA ☁  
8 **14º** ZAPATUA ☁  
6 **12º** DOMEKA ☁  
6 **12º** ASTELEHENA ☁  
6 **14º** MARTITZENA ☁

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA



**Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan**  
10:00etatik aurrera  
**Durango - Zapatu goizetan**  
**Zornotza - Domeka goizetan**

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga..... 0,80 euro  
Tomateak..... 3 euro/kg  
Porruak..... 1,80 euro/tx  
Kalabaza..... 2,50 euro/kg  
Azenarioiak..... 1,50 euro/tx  
Azalgak..... 2 euro/kg  
Romaneskua..... 3 euro/kg  
Indabak..... 15 euro/kg  
Arrautzak..... 3,60 e/dozena  
Idiazabal gazta.....16,50 e/kg  
Ogi zuria..... 3,30 euro

Denborapasen SOLUZIOAK

1	4	2	6	5	8	9	3	7
3	5	8	1	7	9	2	4	6
6	7	9	2	3	4	5	1	8
2	1	3	4	6	7	8	9	5
7	8	4	9	2	5	1	6	3
5	9	6	3	8	1	4	7	2
9	2	7	5	1	3	6	8	4
8	6	1	7	4	2	3	5	9
4	3	5	8	9	6	7	2	1

U	I	V	R	E	K	U	V
•	I	K	O	T	V	X	•
K	•	U	T	R	E	T	V
V	U	T	I	O	D	•	•
I	T	•	V	T	T	E	D
R	V	T	•	I	V	T	•
V	K	I	N	V	K	E	M
T	I	B	V	•	U	N	•
I	Z	V	R	V	S	V	K
Z	T	R	V	B	•	C	•
U	R	V	T	•			
V	I	D	I	T			
•	Z	•	O	•			



Jon Artza  
Soziologoa

# "Tailerreko ordutegiagaz balitz, behar hau hamarrekoa litzateke"

Mallabiko okindegiko jabeetako bat da Fernando Aldalur, bertan jaio arren bizimoduak Durangora eroandako pastelgile eta kirolzalea

Larranotik mendi-buelta egin ondoren etorri da Fernando elkarriketara, ogiak eta opilak besapean dakartzala. Berbaldi gozoa, inondik ere. Bere bizimoduaz berba egin digu; 24 urteagaz Mallabitik Durangora joan zen bizitzera, eta pastelgile dihardu 36 urtean. Lantokia, baina, Mallabian dauka. Gauzez egiten du lan, eta egunez lo, baina ez du horregatik umorerik galtzen.

## 36 urtean zabilta okin eta gozogle lanetan.

18 urteagaz hasi nintzen beharrean, Eibarren. Bederatzi urtean egon nintzen han, eta gero Durangoko enpresa batetik deitu zidaten; zappi urte egin nituen. Handik Mallabira joan eta oraindino bertan nago.

## Zelan eta zergatik hasi zinen behar honetan?

Anaiak denda bat zeukan, eta behargin baten bajaren ondorioz berari laguntzen hasi nintzen, enkarguak-eta egiten. Tartean, nire ugazaba izango zenari ere eroaten nizkion enkarguak etxera. Egun batean berak komentatu zidan ea probatu gurako nukkeen gozogile lana, eta hantxe hasi nintzen. Soldaduskan gidabaimen guztiak atera nituen, eta nire ilusioa gidari izatea zen. Baina bueltan postua gordeta neukan gozotegian, eta bertan geratu nintzen.

## Gero Durangora ezkondu zinen.

Durangon bizi nintzela, deibat jaso nuen enpresa batetik. Baldintza hobeak ziren eta Eibar baino hurrago zegoen. Aldatzea erabaki nuen. Gero, behargin bi enpresa bat sortzekotan hasi ziren; okina eta banatzailea ziren, eta pastelgilea falta zitzaien. Azkenean, bi sartu ginen.

## Beraz, zu, okina barik pastelgilea zara...

Ni beti izan naiz pastelgilea. Edozelan ere, ogia egiteko esku bat bota behar denean ere ez daukat inongo arazorik. Izan ere, ogia nahiko erraza da egiteko. Behar hau nahiko ona da. Txarra dauka-

na zera da: ordu pilo, asteburuak, familiagaz egoteko ez dela oso bateragarria... Semeak hazita dauzkat dagoeneko, baina txikiak zirenean ez nuen ordutegiagaz bat egiten. Andreagaz ere, beharrerakoan ni ohera, eta oherakoan ni beharrera. Eguneroko bizitza nahiko gogorra da, baina lana bera ona da. Tailerreko lana baino gurgodut; hori bai, tailerreko ordutegiagaz balitz hamarrekoa izango litzateke.

## Kontaiguzu zelakoa den zure lanegun normal bat.

Gauzez beharra egin ondoren, 09:00ak inguruan irtetzen dut. Beti edukitzen dut zer edo zer egiteko, enkarguak-eta. Niri kirola gustatzen zait pilo bat. Squasheara jolas-tu dut urte askoan, astein bi egunetan. Bestela, mendira ere askotan joaten naiz ibiltzen: Mugarra, Anboto, Oiz... Ezin dena da beharretik irten eta tabernara, handik ohera eta gero berriz beharrera. Apur bat mugitu egin behar duzu. Lana amaitzean psikologoaren gana noala esaten dut; mendia da nire psikologoa. Gero jaitsi, ardo bat edo bi hartu lagunekin eta bazkaltzera; niretzat, afaltzera. Arratsaldean lo egiten dut.

## Zer da pastelona egiteko ezinbestekoa?

Nik sekretu handirik ez daukat, pastel tradizionala egiten dut-eta. Gaur egun, hainbeste produktu dago ia ez duzula jakin behar pastela egiten pastelgilea izateko. Ez da hori nire kasua, hasi eta amaitu neuk egiten dut-eta. Opilak, kremak, hostopilak... guztia nik egiten dut. Bestalde, gaur egun

aukera asko egon arren, kolozaila eta antzekorik ez dut erabiltzen. Beti egin den pastela egiten dut. Nire bezero gehienek hori gura dute.

## Tradizionala baina era askotakoa, ala?

Gauza asko egiten dugu: pastela almendrekin, kiribilak, pasteltxoak, pastak, tartak, enpanadak, ezkontzeta-tartak...

## Zukzerduz gogoko jateko?

Labetik arroz-pastela edo bonba bat irtetzen bada, ba horrexek. Baina, gauzez, ogi-opil bategaz zer edo zer haiek denak baino hobeto.

## Pastela sarri erabiltzen da protesta egiteko. Ez alda, bada, alferrik galtzea...

Beno, normalean merengezkoak izaten dira, eta merenge egitea ez da hainbeste kostatzen. Hori ere norbaitek asmatuko zuen, beste bati gustatu, eta orain denok egiten dugu. Nik ere, inoiz, pasteldegian baten bat ederto ipini dut. "Ez daukaldala balorerik?". Aurpegia hurreratu, eta birritan pentsatu barik, plasta! Gero igoal berriro egin behar, baina momentuan gusturatu geratu.

## Fernando Aldalur •

Durangon bizi da; mallabitarra da berez



Sarri entzun izan dut, hemen ez dela elebitasunik, hizkuntz errealitate diglosikoan bizi garela. Diglosia, euskara eta frantses-gaztelaniaren arteko elkarbizitza zeharo desorekatu gisa ulertu izan dut. Hargatik, *Bat* soziolinguistika aldizkarian berriki irakurritakoak argi apur bat eskaini dit: Mikel Zalbidetik diglosia aztertu du testu nagusian eta zappi adituk ekarpenak egin dizkiote.

Diglosia XVIII. mendean Grezian sortu bazen ere, 1959an Fergusonek mundu akademikora ekarri zuen. Esango dugu ahaide diren hizkuntzatan eta beraien dialektoen artean eman daitekeen fenomeno dela: ohiko harremanetan hizkuntza bat erabiltzea, eta maila formalean, aldiz, beste bat. Fishmanek gehitu zuen diglosia ahaide ez diren hizkuntzatan ere gerta daitekeela; eta, funtsean, gizarte batean hizkuntza bik edo gehiagok konpartimendu sozio-funtzional bereiziaz izatean datzala. Iturri hauetatik edan zuten "menderatuen diglosia" aldarrikatu zuten katalan-herrietako soziolinguistek, eta, jakina, hortik edan dugu guk ere. Baina diglosian mendekotasuna ez da ezinbestekoa; aitzitik, hizkuntza bik, bakoitzak bere espazioa izanik, elkarbizitza "baketsua" izan dezakete. Are gehiago, Zalbideren ustez, euskarak izan duen diglosia galtzen ari da, soilik "arnasguneetan" -Lea-Artibai edo Urola-Kosta kasu- geratzen dira arrasto apurak. Bere proposamena da euskararen espazio "naturalak" berreskuratu eta berrindartu egin behar direla, jakina, eremu berrietan sendo txertatzeari uko egin gabe. Benetan saio interesgarria.

# ALKIMAX

Alquilamos soluciones



Eitua industrigunea 71C  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
94 682 45 50  
alkimax@alkimax.net  
www.alkimax.com

